



**"ZEOS programaren bidez gure gazteen ongizate emozionala eta digitala hobetuko dituzten praktikak sustatu nahi ditugu"**

**Durango** • Hezkuntza komunitate osoak arduraz bizi du teknologia digitalen inguruan ume eta gazteek egiten duten erabilera. ZEOS programan parte hartuta, Durangoko Kurutziaga ikastolan gaiaren inguruko lanketa egingo dute. • **2-3**



**Euskara  
Otxandioko plazara**

**Otxandio** • Azken hileetan, Otxandioko Euskalgintza Taldeak ahalegin berezia egin du euskara bultzatzeko. Antolaturiko ekimenen artean, 'Emojonk' galdera-erantzunen jokoak eragin du saltsarik handiena herritarren artean. 116 lagunek parte hartu dute. Korrika herritik pasatu zen egunean egin zuten sari banaketa, egun osoko jai handiaren barruan. Aurrera begira, gogotsu daude euskara plazara ateratzeko lanean jarraitzeko. • **6**

**Domekako hauteskundeak emaitzak, 'anboto.org' atarian**



**Hauteskundeak** • Domekan Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Boto bidez, herritarrek beste lau urterako aukeratuko dituzte ordezkariak. Durangaldean 63.045 herritar daude deituta botoa ematera. • **11**

**San Prudentzio jaietakok gehigarria**



**"Traña-Matienak auzoari freskotasuna emango dion Asanblada behar du"**

**Jaiak** • Traña-Matienako jaiak inauguratuko dute hemendik eta urrira arte eskualdean egingo diren ospakizunen egutegia. Auzoko gazteria gogotsu dago Gazte Egunaren zortzigarren edizioa ospatzeko. • **13-18**





## “ZEOS programaren bidez gure gazteen ongizate emozionala eta digitala hobetuko dituzten praktikak sustatu nahi ditugu”

Durangoko Kurutziaga ikastolako hezkuntza komunitatean teknologia digitalaren inguruko lanketa programa bati ekingo diote

### DURANGO • KURUTZIAGA

Hezkuntza komunitatean teknologia digitalen erabileraren inguruan hainbat kezka piztu da azken urteetan. Ikasleek egiten duten pantailen erabilera –batez ere mugikorrarena– da ikastetxeko arduradunak eta familiak gehien arduratzen dituenak. Gai hau lantzeko ikastolan sortutako GUK16 taldea erreferente da gure inguruan. Ildo horretan, Kurutziagak urrats bat gehiago emango du ZEOS programan parte hartuta. Ikasturte honetako hirugarren hiruhilabetean gauzatuko dute egitasmoa. Mari Luz Guenaga Kurutziagako presidente eta GUK16 taldeko kideak, Iñaki Valle DBHko elkarbizitza arduradunak eta Erika Lagoma GUK16 taldeko gurasoak programa honek suposatzen duen “aurrerapausoa” azpimarratu dute Kurutziagak bere komunikazio sarean kaleratutako elkarrizketa honetan.

### Zelan hartu du Kurutziagak ZEOS programan parte hartzeko aukera?

**Mari Luz Guenaga:** Gai honen inguruan kezka orokor bat dago hezkuntza komunitatean. DBHko irakasleek sarritan ohartarazi gaituzte gailuen erabilera desgokiak sortzen dituzten elkarbizitza arazoez. Araudi bat egon badago, baina jarraibide horiek betetzeko familiak gurekin behar ditugu. Kontziente gara gazteen erantzun, portaera eta hizkuntza ikusita gailu hauen erabilera desgokiak zein eragin izan dezakeen. Hezkuntza komunitate honetako organo desberdinek bat egiten dute analisi honekin. Kezka horren aurrean, ikastolako GUK16 guraso taldeak ZEOS proiektua ezagutu zuen Durangoko Azokan, eta horrela sortu zen ikastolak proiektuan parte hartzeko aukera.

### Zer da ZEOS programa?

**M. L.G:** Programa berritzailea da EAEn. Gure gazteen artean teknologia digitalen inguruan harreman osasungarriak sustatu nahi ditugu, batez ere mugikorrekin. ZEOSek Zentzuzko Erabilera eta Osasuna Saretzen esan nahi du. ‘Osasuna eta Ongizate Digitala Ehuntzen’ moduan definitu dezakegu. Gure ikasleak, haien familiak eta irakasleak teknologiaren erabilera kontziente eta osasungarrian hezteko eta ahalduzko diseinatutako programa bat da. Ikuspegi integral horrek hezkuntza komunitate osoa norabide berean gaia lantzen jartzen du.

### Zeintzuk dira programaren helburuak?

**M. L.G:** Programa honen bidez gure gazteen ongizate emozionala eta digitala hobetuko di-

tuzten praktikak sustatu nahi ditugu. Horixe da helburu nagusia. Ikastolan askotan gertatu zaigu gaiari heltzeko erreminta falta sumatzea, bai gurasoen eta baita irakasleen aldetik ere. Programa honen bidez, teknologia erabiltzeak osasun emozional eta mentalean dituen eraginei buruzko ezagutzak jasoko ditugu. Era berean, ahalduzko ariketa bat ere izango da. Ikasleei, familiei eta hezitzaileei tresna praktikoak emango zaizkie teknologien erabilera modu eraginkorrean eta osasungarrian kudeatzeko. Hezkuntza komunitateko agente nagusiok bat egiten dugu gai honetan, elkarlanean eta norabide berean. Ikastolako zuzendaritza eta irakasleak gai honetan oso inplikaturik daude, baita familiak ere, GUK16 ekimenean ikusi du-

gun moduan.

### Zelan bideratuko dira programa honetan ateratako datuak eta ondorioak?

**M. L.G:** ZEOS programa Osasun Sailak babestutako ikerketa prozesu batean kokatzen da. Bertatik ateratako ondorioak konfidentzialtasunez eta era anonimo batean biltegitratuko dira Osasun Sailean bertan.

### Edonork parte hartu dezake ZEOS programan?

**M. L.G:** Ikasleek, irakasleek eta gurasoek prestakuntza espezializatua jasoko dugu, osasun digitaleko eta emozionaleko adituek emanda. Azpimarratu behar da gurasoentzako prestakuntza horretan Durangoko edozein gurasok parte hartu dezakeela. Kurutziagakoez gain, herriko beste ikastetxetako gurasoei ere parte hartzeko aukera eskainiko zaie. Kurutziaga barruan, DBH etapako irakasleek eta DBHko 4. mailako ikasleek parte hartuko dute.

### Nola parte hartuko dute ikasleek, irakasleek eta familiek?

**M. L.G:** Saiotara bertaratuz, informazioa izanez, kezkak plazaratuz eta praktikak jasoz zein inkesta anonimoak betez (ikasleak, familiak eta irakasleak). Ikasleak gailu mugikorren erabilerari eta pertzepzioei buruz ebaluatuko dituzte, egitasmoa egin baino lehenago edo geroago. Galderak honako hauek izango dira: zenbat mezu jasotzen diren egunean, zenbat aldiz kontsultatzen den mugikorra egunean mezurik jaso den ikusteko, sare sozialak kontsultatzeko, bideojokoekin jolasteko eta mugikorra erabiliz egunean kontsumitutako orduak. Halaber, ikasleek datu horiei buruz duten iritzia, kontsultak egiten diren eguneko uneak (goizez, arratsaldean, gauaz/ eskola-ordutegian, aisialdiko ordutegian), lagunekin aurrez aurreko harremanak versus digitalak, egoera emozionala eta abar galdetuko dira. Prozesuaren ebaluazioa ere egingo da. Ikasleen eta irakasleen gogobetetze maila, ikastetxearen onarpen maila eta familien inplikazio maila baloratuko dira.

Gurasoei dagokienez, formakuntza jasotzeko datak zehaztuta daude: maiatzaren 7an, 8an, 13an eta 15ean izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Formakuntza guraso guztiei zuzenduta dago, ez da bakarrik DBHko gurasoentzat izango. Kurutziagatik kanpoko edozein gurasok ere parte hartu dezake formulario honetan izena emanda. Lau saio hauetan hainbat gai landuko ditugu gurasoekin: mugikorraren auziaren formakuntza integrala, osasun mentalari buruzko atala, sare sozialen arrisku eta erabile-



rari buruzkoa eta nerabearoa-  
rekin lotutako gaiak (beldurrak,  
balioak, autoestimua eta iden-  
titate eraikieraren garrantzia).  
Laugarren saioaren amaieran  
bilkura bat egiteko aukera egon-  
go da. Lau saio hauek osatzen  
dute formakuntza, eta lauretara  
etortzea gomendatzen dugu.

**Ikasleek, irakasleek eta gurasoek prestakuntza espezializatua jasoko dugu, osasun digitaleko eta emozionaleko adituek emanda**

**Iñaki, Kuruziagako DBHko elkarbi-  
zitza arloko arduraduna zara. Tele-  
fono mugikorren, smart watchen...  
erabilera orokortu eta okerrekin  
zelan eragiten dute ikastetxeko  
eguneroko bizitzan? Zelan eragiten  
dute gure gazteen ongizatean?**

**Iñaki Valle:** Gizartean bezala  
gailuek ere presentzia dute ikas-  
tolako hainbat eremu eta lan es-  
parrutan, ikasle zein irakasleon  
jardunean. Urteak dira ikastolak  
elkarbizitzatik egoera berri honi  
erantzuteko asmoz aurre hartu  
eta erabileraren inguruko jarrai-  
bideak eta arauak adostu zituela.  
Gailuen erabilera handituz joan

da denboran eta adinean aurrera  
joan ahala, ikastetxetik kanpo  
zein barruan. Hala ere, maiz  
izaten ditugu arazoak tresnen  
erabilera desegokiak direla eta.  
Gauzak horrela, erabilera oker  
horien ondorioz arautegia jar-  
raitzen dugunean, gatazkak  
eta eztabaidak egon ohi dira  
ikasleekin. Jarrera aldaketa na-  
bariak eragiten ditu ikasleengan  
gai honek. Horrek tresnarekiko  
dependentziaren hastapeneta-  
ra garamatza. Beraz, portaera  
hauek argi uzten dute hezkuntza  
komunitatean nola edo hala zer-  
bait egin beharrean gaudela.

**Irakasleok zelan hartu duzue pro-  
grama honetan parte hartzeko  
aukera?**

**I.V.:** Profesional moduan, begi  
onez eta komunitate osoarentzat  
oso lagungarria izan daitekeen  
aukera lez. Gure gazteek gai-  
luekin duten harreman desego-  
ki eta ongizate emozionalean  
duen eraginez jabetuta gaude  
guztio; hortaz, kontzientzia  
hartu eta esku hartzeko aukera  
gisa hartu dugu programa hau.  
Azken finean, askotan jarrera  
eta portaera kontraesankorrak  
izaten ditugu teknologien erabi-  
lerari dagokionez. Izan ere, cu-  
rriculuma aberasten, materialak  
egokitzen, ikaskuntza prozesua  
motibagarriagoa eta bisualagoa

gauzatzen... laguntzen digute,  
baina, bestetik, ezin ahaztu ho-  
nek guztiak erabileraren ingu-  
ruko heziketa eta era bateko edo  
besteko kontrola ere eskatzen  
duela.

Era berean, eta oraingoan  
gizabanako moduan, gailu tek-  
nologikoak modu arduratsuan  
erabiltzea gure gizartearen  
erronka nagusienetariko bat  
den heinean, horien erabilera  
koherentea bultzatu nahi dugu.  
Horretan ere, uste dugu lagundu-  
ko digula proiektu honek.

**Programak zein ikuspuntutatik lan-  
tzen ditu teknologia digitalak?**

**M.L.G.:** ZEOS programaren hel-  
burua, batetik, mugikorrarekin  
harreman osasuntsu bat izatean  
datza, eta bestetik, gure gazteen  
ongizate maila psikoemozionala  
hobetzea guztion artean. Espe-  
rientzia eta ebidentzia akademi-  
koa abiapuntu izanik, bi helburu  
horiek betetzeko eta bertaratu-  
ko direnen beharrianak eta  
kezkak asetzeko jorratuko dira  
saioak.

**Parte hartzea garrantzitsua izango  
da.**

**M.L.G.:** Bai, eta DBHko irakasleak  
benetan eskertu nahi ditugu  
programan parte hartzeko azal-  
du duten interesagatik eta egin  
duten ahaleginagatik. Gurasoak  
eta ikasleak ere parte hartzera

animatu nahi ditugu, denok  
elkarlanean gai honetan aurre-  
rapausoak ematea garrantzitsua  
delako. Etorkizun digital osa-  
suntsuago batera bidean guztion  
ahalegina beharrezkoa izango  
da.

**Gure ikasleak, haien  
famiak eta irakasleak  
teknologiaren erabilera  
kontziente eta  
osasungarrian hezteko  
eta ahalduzko  
diseinatutako  
programa bat da**

**Kuruziagak gai hau aspalditik  
lantzen dihardu GUK16 guraso  
taldearen bidez. Zein da ikasturte  
honetan egiten ari zareten lana?**

**Erika Lagoma:** Koordinazio lana  
egiten ari gara talde desberdi-  
nekin. Izan ere, ikasturteka  
talde bana dugu, 2011n jaiota-  
ko umeen gurasoekin hasi eta  
2014ra arte. Talde bakoitzak  
bere bilerak eta lanketa propioa  
ditu. ZEOS programa ere mar-  
txan jarriko da, eta taldean oso  
pozik gaude aurrerapauso hau  
oso beharrezkotzat jotzen du-  
gulako. Programa honen bidez,  
proiektua beste maila batean  
kokatzen da hezkuntza komuni-

tate osoaren parte hartzearekin.  
Gurasoen formakuntzarekin  
jarraitzen dugu eta, alde horreta-  
tik, ZEOS programak formakun-  
tza sakona eta oso interesgarria  
eskaintzen digu.

**Kuruziagako GUK16 taldea errefe-  
rente da inguruan.**

**E.L.:** Gure lanak interesa sortu  
du inguruko beste hainbat ikas-  
tetxetan ere. Bilera, hitzaldi eta  
artikuluak idazteko eskaerak  
jaso ditugu. Durangora begira,  
hainbat ikastetxerekin bildu  
gara. Inguruko ikastetxe eta  
herrietan ere bagabiltza heda-  
pena egiten. Esate baterako,  
Atxondoko herri eskolako hiru  
guraso ordezkariarekin bilera  
izan genuen. Deiak jasotzen  
Elorriotik, Markinatik, Bilbotik,  
Beasaindik, Orozkotik eta baita  
Arratiatik ere.

**Zeintzuk dira GUK16 taldearen hu-  
rrengo erronkak?**

**E.L.:** Herri mailan elkarlana sus-  
tatzea instituzioak inplikatu.  
Udala eta beste eskolak inplika-  
tu nahi ditugu herri mailako  
formakuntza eta proiektu ba-  
teratua errotzeko. Era berean,  
bestelako formakuntzekin ere  
jarraitu nahi dugu, ikastolako  
gurasoen saretzea bultzatzen  
jarraitu, eta gure arteko kezkak  
eta interesak elkartzen dituen  
gunea sortuz.



Zentzudun bizi,  
**blogean ikasi**

Ekonomia eraldatzailea • Ekonomia feminista • Elikadura burujabetza • Etxea • Euskara  
Gizarte eraldaketa • Gorputzaren burujabetza • Iraunkortasuna • Konmari metodoa  
Kontsumo alternatibak • Zero zabor... **EUSKARAZ!**



## Berbaroren 'Labur Esanda' film laburren lehiaketa, asteburu honetan Plateruena Kultur Aterpean

Lehiakideek gaur jasoko dituzte pelikula egin ahal izateko argibideak, 16:00etan. 24 orduan egin beharko dute filma

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Irudimena, sorkuntza eta auzolana batzen dituen Labur Esanda film laburren lehiaketa bueltan da. Berbarok aurtengo edizioaren xehetasunak argitu ditu. Lehiaketa asteburu honetan bertan jokatu da, ohikoa den moduan, parte hartzaileei 24 ordu

ko denbora emanda film laburra egin ahal izateko. Lehiaketara aurkezten diren taldeek, gaur, apirilak 19, jasoko dituzte pelikulan erabili beharreko gaia, objektua eta esaldia, 16:00etan. Hortik aurrera, gidoia, aktore lana, zuzendaritza eta produkzio gaitasuna erabili beharko dituz-

te erlojuaren kontra, 24 orduan film laburra entregatzeko. Amaituriko film laburrak Plateruena Kultur Aterpean ikusi ahal izango dira, apirilaren 20an, 22:00etan. Lehiakideez gainera, edonork joan ahal izango du filmak ikusi eta tarte atsegin bat igarotzera. Berbarok aurreratu duenez, 600 euro egongo dira saritan.

Iazko edizioan zortzi taldek eman zuten izena, eta horietatik bostek aurkeztu zuten film laburra. Lehiaketa Har Hik Etarrak taldeak irabazi zuen, *Parisera* film laburragaz. 300 euro irabazi zituzten. Bigarren saria (200 euro) Zaharraz harro taldearen *Iguriki* lanak irabazi zuen. Eta hirugarren saria Urkiola taldearen *Gauza simpleenak* filmak (100 euro).



Iazko parte hartzaileen familia argazkia.

## Hiri kanpamentuak, Txiki-Txoko eta Abentura, Udaroren eskaintzan

Udaroko programetan aurrematrikulatzeko epea apirilaren 23an zabalduko dute, martitzenean. Ondoren, maiatzaren 7tik aurrera, matrikulazioa egin beharko da

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durango Udalak Udar aisialdi programaren edizio berria ipiniko du martxan. Bost egitarau prestatu dituzte uda sasoiaren umeei eta nerabeei aktibitateak eskaintzeko. Egitarauak honako hauek dira adin tarteka: Txiki Txoko, 3tik 5 urtera arteko umeei begirakoa, ekainaren 24tik aurrera izango da, Landako Gunean; Hiri kanpamentuak 6tik 10 urtera bitarteko

tuko dituzte, ekainaren 24tik eta uztailaren 8tik aurrera. Abentura programa Landako Gunean eskainiko dute, 11tik 14 urtera bitarteko gazteentzat; Ingelesez Olgetan programa Institutuan izango da, 7tik 14 urtera arteko umeei; eta Kirol udalekuak Landako Gunean eskainiko dituzte, adin tarte bereko umeentzat. Prezioei dagokienez, hamabostaldi batek 100 euroko prezioa du, eta hamabostaldi bik 160 eurokoa.



Ekintzetariko batzuk Landako Gunean eskainiko dituzte.

## Durangaldeko ordezkariak batek Leitzan egingo diren Euskal Herriko Bollotopaketetan parte hartuko du

Apirilaren 26tik 28ra egingo dira. "Bollerismotik pentsatzera eta antolatzen" deitu dute

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

40 urte joan dira Erreterian Euskal Herriko lesbianen arteko lehenengo topaketa egin zenetik. Orduetik hona, "bollera subjektu politikoa hainbat formatan aberastu eta eraldatu" da, baina beharrezkotzat

jo dute "zapalkuntzaren kontra borrokatzea". Horretarako, Bollo-topaketak egingo dituzte Leitzan, apirilaren 26tik 28ra. Durangaldeko ordezkariak batek bertan parte hartuko du eta "bollerismotik pentsatzera eta antolatzen" deitu

dituzte herritarrak. Elkar saretzeaz gainera, "kezka eta problematika propioak" aletuko dituzte. Berbaldiak, tailerrak, bertso saioa, karaokea, proiektzioak, performanceak eta arte sorkuntzak izango dituzte egitarauan.



Apirilaren 11n Bollotopaketak aurkeztu zituzten Intxaurren.

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 12a  
22. urtea - 963. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01

ISSN:  
1578-7028

Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Turismoa %50 hazi zen Aste Santuan Durangon

722 lagun joan ziren Turismo Bulegoa. Durangoko Udalak goraipatu egin du lorturiko "arrakasta", eta eskerrak eman dizkie sektorea bultzatzen lagundu duten denei

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Udalak emandako datuen arabera, iaiztik honako bisitari kopurua %50 hazi da Aste Santuko egunetan. Martxoaren 28tik 31ra arteko egunetan, Kuruzesantu Turismo Bulegoak 722 bisitari erregistratu zituen. Herria ezagutzera etorritako gehienak euskal herritarrak eta Espainiako estatutik heldutakoak izan ziren. Era berean, Espainiatik kanpoko bisitarien presentzia ere "nabar-

menu" egin dela jakinarazi du udalak.

Emandako zerbitzuei dago-kienez, 403 izan ziren Gerediaga Elkartegaz batera antolatutako bisita gidatuetan parte hartu zutenak. Era berean, Kuruzesantun bertan ere asko izan ziren Carlos Garcíaren maketak ikustera bertaratu zirenak. Udalak datuek erakutsitako "arrakasta ospatu" du eta eskerrak eman dizkie sektorea sustatzen lagundu duten denei.



Arrazakeriaren kontrako elkarretaratze bat, iaz, Andra Marian.

## Etorri berriekiko enpatia eta inklusioa sustatzeko jardunaldi sorta Durangon

Migrazioak dituen beharrezane eta baliabideei buruz hausnartuko dute apirilaren 25ean

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Arrazakeriaren Aurkako Astearen barruan, Durangoko Udalak eta Immigrazio Sailak jardunaldi sorta bat prestatu dute bazterkeriazko jarreraren aurrean enpatia eta inklusioa sustatzeko. Aurtengo edizioan, udalerrira ailegatzen diren etorri berrien harreraren egingo dute azpimarra. Hori dela eta, herriko zerbitzuak ezagutarazteko ibilbideak antolatu dituzte etorri berrientzat. Besteak beste, Herriarren Arreta Zerbitzua, Lanbide, euskaltegiak eta Andragunea non dauden erakutsiko diete. Bisita gidatuok apirilaren 27an hasita egingo dituzte, 10:30ean

Herriarrentzako Arreta Zentrotik irtenda. Bestalde, apirilaren 25ean kafe-tertulia bat egingo dute, migrazioaren beharrezane eta erronkei buruz gogoeta egiteko.

Veronica Redondo immigrazio teknikariak zehaztu duenez, Durangoko biztanleriaren %9,8 atzerritarra da. Urte hasierako datuen arabera, 2.993 durangarrek dute Espainiatik kanpoko hiritartasuna. "Azken urteotan, Erdialdeko Amerikatik eta Hego Amerikatik datozen herriarren etorrera nabarmentzen dabil. Kolonbiatik datozen herriarrena, adibidez. Normalean emakumeak dira handik datozenak.

Migrazio-prozesua haiek hasten dute, eta etxeko lanetan, zaintza lanetan bilatu ohi dute bizimodua", azaldu du Redondok. Durangoko Immigrazio teknikariak herriarren aniztasuna azpimarratu du. 50 baino gehiago dira herrian dauden askotariko hiritartasunak.

Mireia Elkoroiribe alkatearen esanetan, "jardunaldiok baliagarriak dira arrazakeriaren errealitatez ikasteko, enpatia sustatzeko, eta errespetuzkoagoa eta bidezkoagoa den Durango bat egiteko". Jessica Ruiz alkateordeak jardunaldietan "aktiboki" parte hartzera deitu ditu herriararak.



Eguraldiak lagundu ez arren, bisitariak ez zioten Durango ezagutzeari iskin egin.

## Ernaik Durangoko garbiketa ordenantza eta propaganda politikoa aztertuko ditu

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko garbiketa ordenantzak "propaganda politikoa kriminalizatu" egiten duela iritzita, Ernaik jardunaldi bat antolatu du "horri erantzuteko mekanismoak sortzeko". Diotenez, araudiak ez du herrian "propaganda politikoa egiteko ia aukerarik uzten, testuinguru zehatzetan baino ezin daitekeelako egin hori, eta ez dagoelako baimena eskatzeko modurik". Gaineratu dutenez, 2023ko urritik hona "udaltzaingoak 30 lagunetik gora identifikatu ditu kartelak, pankartak eta bestelakoak itsasteagaitik". Hori dela eta, "adierazpen askatasunaren alde borrokatzea" deitu dute. Jardunaldia apirilaren 27an egingo dute. Mario Zubiaga zuzenbide ikasleagaz Berbagunean, 10:30ean.

## Kontseilu Sozialistak batzar informatiboak egingo ditu Maiatzaren Lehena prestatzeko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durungaldeko Kontseilu Sozialistak hiru batzar informatibo egingo ditu Maiatzaren Lehena prestatzeko. Aurreratu dutenez, "instituzioetako fartsatik harago alternatiba erreala badagoela" adieraziko dute Maiatzaren Lehenean: "Langile boterearen eraikuntza". Hain zuzen ere, "antolakuntza independente" hori ipini dute "enpresariaren eta instituzio burgesen aurka" egiteko "beharrezko aldagai" modura. Apirilaren 21ean Durangoko Intxaurren egingo dute batzar informatiboa, 17:30ean. Elorrioren apirilaren 25ean batuko dira, Ateneoan, 18:30ean. Eta Abadiñon apirilaren 26an egingo dute batzar informatiboa, 18:30ean, Txanporta Kultur Etxean.

## Olazarmendi klubeko Eider Agirre eta Hodei Rivas Espainiako txapelkun

Gimnastika erritmikoa lantzen duen talde zaldibartarreko lau kide Herrialde Katalanetako Castello hirian izan ziren Espainiako Base Txapelketan lehiatzen. Bik urrea lortu zuten

**ZALDIBAR • JOSEBA DERTEANO**

Zaldibarko Olazarmendi gimnastika kluba lau taldekideguz lehiatu zen Castellon (Herrialde Katalanak) jokaturiko Espainiako txapelketan. Eider Agirrek urrezko domina eskuratu zuen gazte mailan. Bestalde, Hodei Rivasek haur kategoriako urrea eskuratu zuen. Eurekin batera, Ane Fernandez eta Nerea Gomez ere aritu ziren kadete eta gazte mailetan, hurrenez hurren. "Dudarik barik, honako hau momentu historikoa da gure klub txikiarentzat eta oso harro gaude eurekin denekin lan egiteaz", diote klubeko entrenatzaile diren Itsaso Zubiak eta Laura Carrillok ohar batean.



Olazarmendi klubeko kideak garaipena ospatzen.



OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Otxandion, Euskalgintza Taldeak antolatuta, aspaldian makina bat ekintza izan da euskara sustatzeko. Ez da talde berria, baina bai legegintzaldi berriagaz batera biziberritu dena, eta, taldekide beteranoen esperientziari berriek ekarritako haize freskoa batuta, kaleak euskaragaz blaitu dituzte.

Euskalgintza Taldea udaleko ordezkariak eta herriko euskaltzaleek nahiz eragileek osatzen dute. Kultura batzordea zena kultura eta euskara batzorde bihurtu du legegintzaldi honetan udalak, euskararen inguruko zinegotzi batez. Aldaketa hori "bultzada" bat izan da taldea berpizteko eta jende berria erakartzeko, Jaione Agirregabiria Basaguren taldeko kide eta AEK-ko irakaslearen esanetan. Gero, denen artean egoniko "kohesio estuak" esplikatzen du azken hileetan antolatu duten ekintza emaria.

Herri askotan ohikoa den joera Otxandion ere gertatu da: euskara jakintza maila handia dago, baina erabilera bajatzen doa. Kezka hori ere izan dute akuilu. "Erabilera handitzea eta apurka egoerari buelta ematea da helburua, jakinda ere ez dela erraza", dio Maider Arrejoleiba Gabilondo taldekide eta zinegotziak.

Iazko abenduaren 3an aurkeztu zuten kanpaina, Euskararen Nazioarteko Egunean, eta Korrikaren etorreragaz jo zuen goia, egun osoko jai batez: pintxo-afaria, pilota partiduak, AIKO taldearen dantzaldia... Orduko "giro itzela" ez dute berehalakoan ahaztuko. Bien bitartean,

# Otxandioko Euskalgintza Taldeak, biziberrituta, euskaraz bete du plaza, askotariko ekintzekin

Berbaldiak, aurkezpenak, galdera-erantzunen jokoa... Euskara modu askotara izan da protagonista kalean eta herritarren artean



Maider Arejolaleiba Gabilondo, Aitor Esteban Etxebarria, Jaione Agirregabiria Basaguren eta Joseba Koldo Gartzia Korrikako zurezko testigu handiagaz.

kolore eta gustu guztietako ekimenak antolatu dituzte: Kike Amonarrizen berbaldia, Asisko Urmenetaren *Gora Euskal Herrietsak* komikiaren aurkezpena...

Baina herrian saltsarik handiena eragin duen jarduera *Emojonk* galdera-erantzunen jokoa izan da, euskal trivial modukoa. 116 herritarrek parte hartu dute jo-

ko honetan, batzuek aldiro eta beste batzuek maiztasun handiz. Astero zazpi galdera publikatzen zituzten eta haiei erantzun behar zitzairen. "Korrikaren egunean ira-

garri genuen irabazlea eta hark, mikrofonoa hartuta eta umorez, eskerrak eman zizkien galderei erantzuten lagundu zioten herritar guztiei", gogoratu dute. Anekdotak hori ekintzak izandako harreara onaren isla da.

Mundu digitalari ere egin diote ekarpena. Hain zuzen ere, inteligentzia artifizialak euskaraz elikatzen aritu dira, etorkizunean makinak euskara ulertzeko eta euskaraz berba egiteko gai izan daitezkeen. 'Gaitu.eus' plataformaren bidez egin dute. "Estrategikoki mundu horretan ere komeni da euskara ondo kokatuta egotea", uste du Aitor Esteban Etxebarria taldekide, euskara teknikari eta bertsolariak.

## Aurrera begira

Kanpaina amaitu den arren, Euskalgintza Taldearen lana hasi besterik ez da egin. Ekimen asko dute buruan. Esaterako, ahalduntze tailerrak, helburu eta hartzaile zehatzagoekin eta "eragin sagonago" baten bila, Agirregabiriaren esanetan.

Denborak esango du gaurko lanak fruiturik emango duen. Bien bitartean, adierazleak behintzat positiboak dira. Esaterako, Otxandiotik bete-beterik joan zen autobusa Baionara, Korrikaren helmugako jaira.

## Mañarian bertso afaria egingo dute Jone Uriagaz eta Unai Iturriagaz

MAÑARIA • J.D.

Ekainean izango den Lasterbidan ekimenari begira motorrak berotzen joateko, eskualdeko herri askotan hainbat ekintza egiten dabilta asteotan. Esaterako, gaur bertan bertso afaria egingo dute Mañarian. Jone Uria Albizuri eta Unai Iturriaga Zugaza-Artaza bertsolariak arituko dira bertsoan, Arri Toki jatetxean, Eneko Abasolo *Abarkas* gai jartzaile dela.

Ez da gaurko ekimen bakarra izango. Abadiñon bakarriketa saioak egongo dira gaur, 19:30ean, Abadiñoko probalekuan. Ana Goitiak eta Mirari Martiarenak *Barre edo so* saioa egingo dute eta Jon Martinez *Txiki-k Euskaldunen jatorria, historia eta irria* saioa.

## Izurtzarrek balio anitzekoa eta naturalagoa den plaza proposatu dute herri batzarrean

Udalak herritarren ekarpenak jaso ditu plaza eraberritzeko aurreproiektua egiten hasi aurretik



Gaur egungo Izurtzako plaza.

IZURTZA • J.D.

Izurtzako herrigunean dagoen plazari bizi berri bat eman gura dio udalak. Aurreproiektua egin aurretik, herri batzarra egin dute herritarren ekarpenak jasotzeko. Apirilaren 8an eginiko batzarra hamar bat lagun batu ziren, adin desberdinetakoak. Batzar "emankorra" izan zela adierazi du Oihane Irastorza alkateak. Alde positiboan, plazak duen "espazio handia" nabarmendu zuten herritarrek; alde negatiboan, oster, errepidea "oso gertu" dagoela. Bestelakoan, plaza umeak "kontuan hartuko dituen balio anitzeko espazioa" izatea proposatu zuten batzarrean; baina "naturalagoa" izatea ere; hau da, ez hain itxura artifizialekoa, eta eremu berde gehiago dituen.

## Gaur bertso afaria dago Arrazolan, Plazarkekeriak egitasmoaren barruan

ATXONDO • J.D.

Plazarkekeriak emakume eta identitate disidentedun sortzaileen kultur plaza da, Arrazolako Amillena Arrazola auzoko Bentaren inguruan gorpuzturiko egitasmoa. Urte hasieratik ekintzak antolatzen dituzte eta ziklo honek ekainera arte iraungo du. "Atxondotik egin gura izan dugu, atxondarrentzat eta durangaldekoentzat, batez ere", azaldu dute sustatzaileek. Hurrengo ekimena bariku honetan bertan izango da, 20:30ean. Bertso afaria antolatu dute Saioa Alkaiza eta Miren Amurizagaz. Maite Berriozabal izango dute gai jartzaile. Aurrera begira, beste hainbat ekintza antolatzeko asmoa dutela iragarri dute.



# Ostalaritza gida


DURANGO

## BASA Eroateko janaria



**Untzillatx, 9**  
**Tel.: 747 421 104**

Hemengo eta kanpoko platerak, kalitatezko eta gertuko produktuez prestatuak. Eguneko menua eta karta. Etorri ta eroan!

 @basa.durango



DURANGO

## IBAIZABAL



**Ibaizabal taldea, 2B**  
**Tel.: 946 550 185**

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!

IURRETA

## GAUARGI



**Dantzari, 4 behea**  
**Tel.: 944 356 674**

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

 @gauargitaberna


ZORNOTZA

## XIBERU



**Zeilia Gallartzagaitia, 9**  
**Tel.: 946 181 758**

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 Xiberu Taberna  
 @xiberutaberna



DURANGO

## OLAJAUREGI



**Kurutziaga, 52**  
**Tel.: 946 200 864**

Ostegun eta ostiral eguerdian 26€-tan eguneko menua; bestalde, ostegunetik igandera eguerdian 'Dastatze menua' 45€-tan. Gauetan, 'Pikoteo' izeneko karta berezia. Zuek ezagutzeko prest gaude! Etorri eta gozatu gure jaki, ostatu eta jatetxeaz.

 HOTEL Olajauregi  
 @hotel\_olajauregi\_jatetxea







Joan zen barikuan prentsaurrekoa egin zuten Elorrioko eskola publikoan Guraso Elkarteak deituta.

## Jaurlaritzak hiru familiari Elorrioko haur eskolan matrikulatzea ukatu dietela salatu dute

Elorrioko eskola publikoko Guraso Elkarteak prentsaurrekoa egin du Eusko Jaurlaritzak herriko hiru familiari bertako eskola publikoan matrikulatzea ukatu diola salatzen

**ELORRIO • JONE GUENETXEA**

Elorrioko Eskola Publikoko eta Institutuko Guraso Elkarteak prentsaurrekoa egin du herriko hiru familiari bizi duten egoera ezagutarazteko. 2024/2025 ikasturterako matrikulak esleituta, Eusko Jaurlaritzak herriko hiru familiari Elorrioko Eskola Publikoan ikasle plaza ukatu dietela salatu dute, hain zuzen ere. "Ma-

trikula eskatu den ikastetxeak, Elorrioko Eskola Publikoak, jasotako eta bete ez diren eskaera guztiak onartzeko adina plaza ditu. Beraz, ez da justifikatzen norbait ez onartzea, ezta eskatu ez den ikastetxe batera bidaltzea ere. Gure ikastetxea eskola publiko da. Familia guztiak onartu behar dira eta horrela izatea gura dugu; ezin da familiarik kanpoan

utzi", salatu dute. Era berean, gogor kritikatu dute Hezkuntza Lege berria. "Hezkuntza Lege berriari ezezko borobila esaten diogu. Gertatu berri dena bulego batean harturiko erabakia da, eta berau legearen ondorioetariko bat. Ez dugu onartuko hiru familia horiek gure ikastetxean ez onartzea, eta gure babesa eta laguntza adierazten dizkiegu", gaineratu dute.

## 2.761 sinadura batu dituzte Elorrioko eguneko zentroaren alde

'Bizi duin, Eguneko Zentroa orain' kanpainaren barruan batu dituzte sinadurak; Aldundiari helarazi gura dizkiete

**ELORRIO • A. M.**

Elorrioren urteak daramatzate eguneko zentroa eskatzen. Orain, *Bizi duin, eguneko zentroa orain* kanpainaren barruan, herritar talde batek 2.761 sinadura batu ditu; horiek eskuan, Aldundiara joko dutela azaldu dute ohar baten bitartez. "Elorriok eguneko zentroa behar du eta honen kontra ez dago ezer argudiatzerik",

adierazi dute. Elorrioko Udalak CPS ikerketa enpresaren txostena publikatu zuen iaz, eta bertan dioenaren arabera, 65 urtetik gorako 1.700 biztanle baino gehiago dituzten Bizkaiko herri guztietan dago eguneko zentro bat, Elorrioren eta beste herri batean izan ezik. Herritarrek mobilizatzen jarraituko dutela adierazi dute ohar berean.



Pentsiodunen mobilizazioa Elorrioren.

**ZORNOTZA • A. M.**

Zornotzako Udalak argi berriak ipini ditu Sabino Arana kalean eta Enrike Renteria pasealekuan. Lan horiekin udalerriko energiaren eraginkortasuna eta jasagarritasuna hobetzeko helburua dutela azaldu du udalak ohar baten bitartez. Eremu bi horietan orain arte zeuden 150 w-ko metalezko halogenurozko argiak 60 w-ko LED argi berriengaitik ordezkatu dituzte. Aldaketa honek "nabarmen" murriztuko da energia kontsumoa, eta oinezkoentzako guneetako argiztapena hobetu; Zornotzako Udalak ia 85.000 euroko inbertsioa egin du.

Horrez gainera, maiatzean Larrabarrenako argiteria hobetzea aurreikusten du udalak; lanek aste bi iraungo dutela eta 18.000 euro inguruko kostua izango dutela aurreikusten du Zornotzako Udalak.

### Nagusientzako kanpaina

Bestalde, *Zornotzan nagusiak seguru* kanpaina ipini dute martxan. Hainbat ekitaldi egingo dute horren barruan; besteak beste, 100 aldiz begiratu jardunaldia, Eusko Jaurlaritzagaz batera antolatuta; maiatzaren 3an izango da hau, Zubiondo parkean. Ekitaldietako lehenengoa apirilaren 24an izango da, 17:00etan,

## Zornotzako Udalak argi berriak ipini ditu Sabino Arana kalean eta Enrike Renteria pasealekuan

la 85.000 euro ordaindu dituzte argi berrietan; maiatzean Larrabarrenako argiteria berritzen hasiko dira



Zornotzako Sabino Arana kalea.

Nafarroa zentroan, eta bigarren maiatzaren 6an, 17:00etan, Zelaieta zentroan. Zornotzako adineko herritarren segurtasuna indartzea da kanpaina honen helburua, eta, besteak beste, etxean, sukaldean, bainugelan eta ka-

lean hartu beharreko neurriak gomendatuko dituzte. Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak kanpainaren garrantzia azpimarratu du: "Zornotzako familien ongizateak lehentasuna du gobernu honentzat".

## Berrizen bonuen kanpaina berriari ekin diote asteon

Hamabost saltokik parte hartuko dute ekimenaren edizio berrian; kanpainak maiatzaren 24ra arte iraungo du

**BERRIZ • A. M.**

Aste honetan hasi da Berrizko 'Bizi Berriz Bonu Kanpaina', astelehenean, eta maiatzaren 24ra arte iraungo du. Ekimen honen seigarren edizioa da hau. Guztira, hamabost saltoki dabilta parte hartzen eta 525 bonu ipini dituzte salgai, 30 euroan. Bonu horietari-

ko bakoitzak 45 euroko erosketa balioa izango du; berriztar bakoitzak bonu bi erosi ahal izango ditu, gehienez. Saltokien artean osagarriak eta zerbitzuak saltzeko guneak daude, baita estetikara eta osasunera bideratutakoak ere; zerrrenda osoa udalaren webgunean dago.



Berrizko herrigunea.



ehbildu

# ALDAKETA DĀ ORAIN\*




e h b i l d u . e u s





## Anbotokideen txokoa

### APIRILEKO ZOZKETAK



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz. Zornotza.



**Errigora** otzara.



**BBK Karpin Fauna** bi sarrera.



**Herri Urratseko** bi lote.

### IRABAZLEAK

'Akadantz': Mireya Villalta Barrueta

'Kortxoaren dilema': Janire Etxanojauregi Mendizabal

'Andereño': Garikoitz Elustondo Sarraoa

### Okm:

batzen gaituen distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaituzte Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



## Traña-Matienako Herritarren Arretarako Zerbitzua zabalik berriro

Zentroak gizarte langilearen bulegoa, herritarrentzako arreta zerbitzua eta podologia zerbitzua hartzen ditu. Arreta ordutegia 9:00etatik 14:00etara izango da

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Instalazioa hobetzeko lanak amaitu eta gero, asteon zabaldu dute berriro ere Abadiñoako Traña-Matienako Herritarren Arretarako Zerbitzua. Bertan, arreta emateko zerbitzua, gizarte langilearen bulegoa eta adinekoentzako podologia zerbitzua emango direla azaldu dute prentsa oharrean. Arreta ordutegia 9:00etatik 14:00etara izango da.

"Ematen den zerbitzua nabarmen hobetzeaz gainera, pribatasun handiagoa eman eta irisgarritasun fisikoa hobetuko duten funtsezko obrak egin ditugu", adierazi du Edurne Maguregi Gizarte Ongizateko zinegotziak.



Lanak egin dituzte Herritarren Arretarako Zerbitzuan.

## Abadiñoako Udalak maiatzaren bigarren hamabostaldian bueltatuko ditu Astolako greba egunengaitiko kuotak



Astolako kiroldegiko argazkia.

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñoako Udalak jakinarazi duenez, maiatzaren bigarren hamabostaldian bueltatuko die era-

biltzaileei Astolako kiroldegiko kuoten zati proportzionala, Bizkaiko sektoreko hitzarmenaren negoziazioagaitik egin diren eta

kirol zerbitzuetan eragina izan duten greba egunengaitik.

Bestalde, mobilizazioek jarraituz gero kalkulua errepikatu egingo dela azaldu dute. Instalazioarako bonuaren ordainketa helbideratuta duten pertsonen modu automatikoan jasoko dute itzulketak, aurretik erreklamazioak egin behar izan barik. Hiruhileko eta hileko abonuek dituztenei ere martxoko diru zatia bueltatuko diete. "Langileen onerako, gatazka azkar eta egoki konpontzea espero dugu. Hori gertatu arte dagozkion itzulketak egingo ditugu", azaldu du Mikel Urrutia alkateak.

## Dagoeneko eman daiteke izena Mallabiko emakumezkoen frontenis txapelketan

Ekainaren 15ean bikotekako txapelketa jokatu da Mallabiko frontoian, federatuena eta federatu bakoena. Banakako txapelketa ekainaren 16an izango da, eskolako frontoian

**MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Mallabia Kirol Elkartek antolatzen duen Emakumezkoen Frontenis Txapelketak badu data dagoeneko. Ekainaren 15ean bikotekako txapelketa jokatu da, Mallabiko frontoian. 09:00etan eskualdeko txapelketa jokatu da; hau federatu bakoien txapelketa da. Eta 11:30ean maila absolutuko txanda izango da.

Biharamunean, ekainaren 16an, banakako txapelketa jo-

katuko da, 09:00etan, eskolako frontoian.

Mallabia Kirol Elkartetik jakinarazi dutenez, dagoeneko martxan da txapelketako izen ematea. Bertan parte hartu gura

**Txapelketako izen ematea martxan da dagoeneko eta 669 028 718 telefonora deitu daiteke**

duten emakumezkoek 669 028 718 telefono zenbakira deitu beharko dute. Bikotekako izen ematea 20 eurokoa da, eta banakakoa 10 eurokoa.

Hauetxek dira txapelketetako sariak: bikotekako txapelketa irabazten duten federatuek 400 euro eta txapela izango dute. Federatu bakoien kasuan, garai-kurra eta 100 euro. Banakako irabazleak txapela eta 200 euroko saria jasoko ditu.



# Durangaldeko 63.045 herritar Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeetara deituta

ANBOTOk hauteskundeetako emaitzen jarraipena egingo du 'anboto.org' webgunearen bitartez, apirilaren 21ean

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Domekan Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak egingo dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Orduantxe erabakiko da Gasteizko legebiltzarra osatzen duten 75 eserlekuak zelan banatuko diren alderdi politikoen artean datozen lau urteetarako. Euskal Autonomia

Erkidegoa osatzen duten 251 udalerrietan 2.695 hautesleku egongo dira herritarren eskura. Eta Espainiako Estatistika Institutuaren arabera, Autonomia Erkidegoko 1.712.301 herritar eta atzerrian bizi diren beste 82.911 daude botoa ematera deituta. Horietatik guztietatik 14.906 herritarrek botoa lehe-

nengoz emateko aukera izango dute. Durangaldeari dagokionez, eskualdeko 63.045 herritar daude hauteskundeetara deituta. Euretari 1.635 atzerrian bizi diren herritarrak dira.

## Durangaldeko ordezkartza

Behin betiko emaitzak domeka gauean jakingo diren arren, itxura guztien arabera Durangaldeko hainbat politikaririk lortuko luke ordezkartza Eusko Legebiltzar berrituan. EAJri dagokionez, Eloreko Mikel Arruabarrena eta Durangoko Josune Escota zinegotziak zazpigarren eta zortzigarren doaz, hurrenez hurren, Bizkaiko zerrendan. EH Bildun, Arabako hautagaitzaren buru izango da Pello Otxandiano lehendakariarekin, eta Ima Garrastatxu Durangoko alkate ohia Bizkaiko hautagaitzako lehenengoa izango da. Hirugarren lekuan Julen Arzuaga berriztarra dago. Elkarrekin Podemosen, Miren Gorrotxategi durangarra borrokatuko da lehendakari izateko, eta Isa Gonzalezek hautagaitza errepikatuko du, zerrendako hirugarren postuan. Alba Gutierrez zinegotzi zornotzarrak hirugarren lekua du Sumar alderdiaren Bizkaiko hautagaitzan. Juan Carlos Poderosok, autobideko bidesariaren kontrako ekintzaileak, Izan koalizioa ordezkatu du. Zerrendako bigarren lekuan ageri da. Esandako moduan, domeka gauean argituko dira zalantza guztiak. Orduantxe diseinatuko da Legebiltzarreko ordezkartza, eta handik aurrera ikusiko da nor egiten duten lehendakari.



Hautesleku bat Traña-Matienako frontoian.

# Sagardo Eguna eta Lorezaintza Azoka asteburuan Garain

Zapatuan Sagardo Eguna egingo dute. Edalontzia zazpi euroan erosi ahal izango da. Domekan Euskal Herri osoko lore postuekin beteko dira plaza inguruak

## GARAI • EKAITZ HERRERA

Asteburua ekintzaz beterik dator Garaira. Hasteko, zapatuan, Sagardo Eguna izango dute. Trumoitte Kultur Elkarteak kideek ospakizunaren seigarren edizioa antolatu dute. 18:30ean edalontziak eta sagardoa banatzen hasiko dira plazan. Zazpi euroren truke, sagardoa edan, eta gazta, intxaurrek eta urdai pintxo bat jateko aukera izango du gura duenak. Azken urteotan ohikoa den eran, DJ Bull musika jartzaileak izango du jai girotzeko ardura.

Bestalde, domekan, Landare eta Lorezaintza Azokaren txanda

izango da. Udalak eta Urkiola Landa Garapenak azokaren hamargarren edizioa antolatu dute. Guztira, hamazortzi ekoizleak, artisauak, landare edo lorezaintza enpresak parte hartuko dute bertan. Besteak beste, lore apaingarriak, lorategiak, fruta-landareak, baserriko makinak eta ortuko landareak ikusi eta eskuratu ahal izango dira bertan. Horrez gainera, Durangaldeko lau baserriko ekoizleren produktu batzuk ere egongo dira eskuragarri. Hala nola taloak, gazta, garagardoa, kontserbak, ogia, gozoak, txakolina eta sagardoa. Azoka 10:00etan hasiko da.



lazko Sagardo Eguneko irudi bat.

# Haurreskoletan izena emateko epea zabalduko dute astelehenean

Inskripzioa egiteko epea maiatzaren 10ean amaituko da

## DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Haurreskolak Partzuergoak apirilaren 22an, astelehenean, zabalduko du irailtik aurrera hasiko den ikasturte berriaren umeei matrikulatzeko epea. Inskripzio epea maiatzaren 10era arte egongo da zabalik. 2023an eta 2024an jaioriko umeei izango dute aukera zerbitzuan matrikulatzeko. Haurreskoletariko batzuek ate

irekien jardunaldiak antolatu dituzte. Atxondon, adibidez, apirilaren 26an hartuko dituzte zerbitzuaz interesaturiko gurasoak, 16:30etik 19:00etara. Zaldibarren ez dute egun espeziifikorik ipini, baina bertako arduradunek azaldu dute atek zabalik dituztela bisita gidatuak egiteko. Horretarako, haurreskolako telefonora deitu (946 824



Zaldibarko haurreskola.

# Lurretako auzoko jaietan autobus zerbitzua ipiniko dute herrigunetik

Kofradien Batzordeak doako autobus zerbitzua ipiniko du herrigunetik auzoetara; herriko auzoen biziberritzea sustatzeko ekimena Oromiñoko jaietan ipiniko dute martxan

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Oromiñoko sanmarkoak hasiko dituzte apirilaren 25ean, eta joan-etorriko autobusa egongo da 27an. Izan ere, lurretako auzoen biziberritzea sustatzeko asmoz, Kofradien Batzordeak doako zerbitzua ipiniko du herrigunetik, auzoetako jaietan. Autobusaren ordutegiak honako hauek izango dira: 17:30ean Maspetik irtengo du Oromiñora; 19:30ean (Maspe-Oromiño-Maspe); 00:30ean (Maspe-Oromiño-Maspe) eta 03:00etan (Oromiño-Maspe). Autobusa Amezketan eta Bakixako bidegurutzetan geldituko da, inor zain egonez gero. Herrigunea auzoetara hurbiltzea da helburua, eta alderantziz. Bada, berdin egingo dute herriko San Migel jaietan.



lurretako dantzariak 2018ko San Marko jaietan.



# Urkiola Landa Garapenak baserriko hondakinak gaika batzeko egutegia kaleratu du

**DURANGALDEA** • EKAITZ HERRERA

Urkiola Landa Garapenak kanpaina bat hasi du baserrietako hondakinak gaika batzeko. Zehaztu dutenez, hondakin zoosanitarioak (abereak tratatzeko botikak eta txertoen xiringak), fitosanitarioak (ongarrien, herbiziden eta fungiziden ontzi hutsak), plastikoak eta artilea batuko dituzte. Plastikoa dela eta, kanpaina berezi bat egingo dute maiatzaren 13tik 17ra. Hondakin plastikoen artean, negutegiko plastikoak eta silo bolen

plastikoak daude. Zerbitzua eskatu gura duenak aurretiaz eman beharko du izena Urkiola Landa Garapenean, 946 203 611 telefonora deituta edo [landagarapena@landagarapena.eus](mailto:landagarapena@landagarapena.eus) helbidera idatzita.

Artileagaz ere, antzera. Uztailearen 8tik 9ra batuko dute. Zerbitzu honetan Bizkaiko Foru Aldundiak, DIBA Kooperatibak eta Urkiola Landa Garapenak esku hartuko dute. Aurreratu dute gutun informatiboa bidaliko dutela honen berri emateko.



Urkiola Landa Garapenak ipini du martxan kanpaina.

## Durangaldea asteen

### Durango Udalak irisgarritasuna hobetzeko lanak egin ditu Intxaurrendoko Helduen Hezkuntzako Zentroan

**DURANGO** | Durango Udalak hainbat esku hartze egin du Intxaurrendoko Helduen Hezkuntza Zentroan irisgarritasuna hobetzeko. 13.705 euroko inbertsioa eginda, guztiz hondatuta zeuden zurezko eskaiera zaharrak kendu eta hormigoizko maila sendo eta iraunkorrek ipini dituzte bertan. Horrez gainera, sarbideetako arrapalak birmoldatu dituzte. Lanak Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza batez finantzatu dituzte.

### Durango Mendibeltz areto futbol taldeak 2.275 euro batu ditu Angelman Sindromea elkartearentzat

**DURANGO** | Mendibeltzek kirola eta elkartasuna uztartu ditu bere azken ekimenean. Kamiseten eta Espainiako Kopako sarreraren salmentagaz 2.275 euro batu dituzte eta diru hori Angelman Sindromea elkarteari eman diote. Elkarteko kideek joan zen zapatu arratsaldean jaso zuten dirua, Landako Kirolegian eginitako ekitaldian.



### Anton Gomez durangarrak Bruselako Conservatoire Royal ospetsuan ikasiko du datorren ikasturtean

**DURANGO** | Anton Gomez saxofonista eta Durango Musika eskola eta kontserbatorioko ikasle ohiak plaza bat lortu du Bruselako Conservatoire Royal ospetsuan; mundu osoko ikasleak batu zituen sarrera proba zorrotza gaindituta lortu du plaza. Gomezek bederatzirte urteagaz hasi zituen musika ikastetako Durango Bartolome Ertzillan, eta 2020an saxofoi espezialitateko musika ikasketak profesional titulua lortu zuen Itziar Castrillo irakaslearen eskutik. Gaur egun Nafarroako Goi Mailako kontserbatorioan ikasten du, Angel Soria eta Nahikari Oloriz musikari ezagunekin.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zerbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira.  
Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

**hitz**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak



**MAITASUN KAPITALA**  
Karmele Jaio  
(Elkar)



**MARKOS GIMENEZAREN 101 LETRAKARTEL**  
Joseba Sarrionandia  
(Pamiela)



**MESFIDA ZAITEZ**  
Bea Salaberri  
(Txalaparta)

**GAER** DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ





# 2024

## Traña-Matienako jaiak



Apirilarek 27tik maiatzaren 7ra arte

# San Prudentzio Jaiak 2024

*Ondo pasa jaietan!*





## San Prudentzio jaiak Traña-Matiena 2024

### Apirilak 27, zapatua

**10:00** Kuadrilla guztiak batuko dira Trañako zubian Donien Atxa ekartzeko.

**12:00** Donien Atxa jasotzea. Giroa alaitzen, **Dunbots** fanfarrea, **Iluntze** taldearen dantza saioa, eta urteko herritar ospetsua saritzeko ekitaldia.

**13:00** Txupinazoa txosna gunean Atxiki Pilota Klubaren eskutik.

**14:30** Herri bazkaria Traña plazan. Ondoren, kuadrillen arteko jolasak, Txosna batzordeak antolatuta. Txartelak salgai apirilaren 22ra arte Errota Kultur Etxean. Prezioa: 10€

**19:00** Mozorro kalejira Trañabarren kalean, **Bizuka Percusión** fanfarreak alaituta.

**22:15** Ikuskizun piro-musikala tren geltokiaren ondoan. Eurria edo haizea bada, hurrengo zapatara atzeratuko da.

**23:00** Erromeria Traña plazan: **Trikizio**

### Apirilak 28, domeka

**11:00-13:00** Umeendako jolasak Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00-19:30** Umeendako jolasak Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00** Haurrentzako henna-tailerra Traña plazan. Eurria bada, frontoian. Amalurra elkarrekin antolatuta.

**16:00** Kadete mailako txirindulari lasterketa, San Prudentzio saria. Abadiño Muntsaratz Txirindulari Kirol Klubak antolatuta.

**17:00** Tute txapelketa Taberna Zarran

**17:00** San Prudentzio 2024 xake txapelketa Pino plazan.

**18:00** Txiki Txef tailerra Zigor Iturrietagaz Traña plazan. Txosna Batzordeak antolatuta.

### Apirilak 30, martitzena

**19:30** Zesta-punta partiduak frontoian. Atxiki Pilota Klubak antolatuta.

**22:00** Kontzertua Traña Plazan: **Llama a la pasma, Parabellum** eta **Leihotikan**

### Maiatzak 1, eguaztena

**Goizean Geu Be** taldeak Eusko Labeleko txahal bat erreko dau Traña- Matienako eskoletan.

**10:00** Txanbolin taldeko Txistularien kalejira.

**10:00** Artisautza azoka eskolako aterpean.

**12:00** Herri kirolak Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**16:00** Mus txapelketa Herriko Etxean.

**17:00** San Prudentzio-San Trokaz esku pilota txapelketa

**17:30** DesOrekatua (Magia en zapatillas) familia ikuskizuna Pino plazan. Eurria bada, eskolako aterpean.

### Maiatzak 3, barikua

**16:45** Txiki merienda merkatu plazan.

**17:15** Disko-dantza merkatu plazan.

**18:00** Esku-pilotako partidak frontoian. Atxiki Pilota Klubak antolatuta.

**19:30** Parrillada eta **DJ Gartz** Traña plazan.

**22:00** Bingo solidarioa Traña plazan

**22:00** Bertso saioa Errota Kultur Etxean. Bertsolariak: **Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Oihana Bartra** eta **Eneko Abasolo "Abarkas"**. Gai jartzailea: **Igor Galarza**. Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean apirilaren 25etik aurrera (gehenez 4 sarrera pertsonako).

**23:00** DJ Gartz Traña plazan

### Maiatzak 4, zapatua

**10:00** Kickboxing opena Traña-Matienako kiroldegian, Fexmack taldeak antolatuta.

**11:30** Paella txapelketarako izen-ematea, merkatu plazan.

**12:30** Iluntze dantza taldearen kalejira eta alardea Traña plazan. Eurria bada, frontoian.

**14:30** Txupinazoa eta Gazte Eguneko bazkaria Traña plazan. Ondoren, Gazte Eguneko jolasak. Eurria bada, eskolako aterpean. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

**16:00** Ugasixo txapelketa merkatu plazan.

**17:30** San Prudentzio-San Trokaz esku pilota txapelketako finalerdia kadete mailan. Atxiki Pilota Klubak antolatuta.

**17:30** Tortilla txapelketarako izen-ematea, merkatu plazan.

**18:30** Kalejira **Skapaie** taldeagaz, Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

**22:00** Kontzertua Traña plazan: **Sua, Dj Kuku, Dj Anybs** eta **Dj Kene**

**23:00** Jaialdia Trañabarren etorbidean: **Jaguar**

### Maiatzak 5, domeka

**10:00** Txanbolin taldeko Txistularien kalejira.

**12:45** Jaizale txistulari elkartearen kontzertua, elizan.

**13:30** Perretxiko-pintxo dastaketa Pinoko plazan, Geredixa mikologi elkarteak antolatuta.

**14:00** Nagusien bazkaria frontoian, Udalaren Gizarte Ongizate Arloak antolatuta. Ondoren **Serenade** taldearen emanaldia.

**20:00** Donien Atxa botatzea.

**petite**  
LIBURUDENDA

PRENTSA • LIBURUAK • ALDIZKARIAK



Zubibitarte, 11 - Tel.: 946 810 438 - Matiena (ABADIÑO)

**R. SAMUR**  
COMPRESORES

Lehorgailuak - hozkailuak  
- iragazkiak - instalazioak  
- konpresoreak - zerrak

TRANA industrialdea,  
pab. D-13, ABADIÑO  
Tel.: 946 818 967

www.reparaciones-samur.com  
samur@reparaciones-samur.com



electricidad **ELGOIN** S.A.



**MUNTAIA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**  
**SARE INFORMATIKOAK**

Zubibitarte, 6  
48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)  
Tel.: 946 817 961 • elgoin@elgoin.com



**atte** studio  
ARKITEKTO TEKNIKOAK

Tel. 946 855 654  
608 518 093

Zubibitarte 2 bajo, 48220 Abadiño

PROIEKTUAK  
ERAGINKORTASUN  
ENERGETIKOAREN  
ZIURTAGIRIA  
LIZENTZIAK  
OBREN ZUZENDARITZA  
ETXEBIZITZEN IKUSKAPEN  
TEKNIKOAK  
BARNE DISEINUA  
TASAZIOAK



BATU ZAITEZ  
HERRI  
MUGIMENDUETARA!

Laubideta 6,  
Abadiño



1963tik IBILBIDEA ALTZAIKAREN ETA  
ALUMINIOEN FORJAKETA ETA ESTANPAZIOAN

Zubibitarte, 4  
48220 Abadiño  
www.newfepa.com

Tel: 946 812 162  
comercial@newfepa.com



**JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Apirilagaz batera, badatoz Traña-Matienako San Prudentzio jaiak, jaien denboraldiari hasiera ematen dioten lehenengoak. Ohiturari eutsiz, apirilaren 27an Donien Atxa jasota hasiko dituzte auzoko jaiak. Aurtengoa, gainera, hasiera berezia izango da. Normalean, iluntzean altxatzen dute jaiak hasiera ematen dien txopoa, baina aurten, zapatua izanda, eguerdian jasoko dute. Kuadrilla guztiak Trañako zubian batuko dira 10:00etan, Donien Atxa auzora eramateko, eta 12:00etan jasoko dute. Aurten ere, urteko pertsonaia ospetsuari saria emango diote. Bestalde, 13:00etan txosnaguneko txupinazoa jaurtiko dute.

Jaietako lehenengo egunean mozorro eguna ospatuko dute eta herriko kuadrillak herri bazkarian batuko dira, Traña plazan. Ondoren, mozorroen kalejira egongo da. Aurtengo gaia musika izango da eta dagoeneko kuadrillak hasita daude gaiaren bueltako jantziak prestatzen. Gau horretan ikuskitzen piro-musikala egongo da tren geltokiaren ondoan, eta Trikizio taldeagaz erromeria Traña plazan.

Musika kontzertuek apirilaren 30ean izango dute jarraipena, martitzenean. 22:00etan hasita, Llama a la pasma, Parabellum eta Leihotikan taldeek joko dute Traña plazan. Maiatzaren 3an DJ Gartzia abadiñarrak girotuko du gaua. Eta jaietako azken zapatuan, maiatzaren 4an, Traña plazan, Sua, DJ Kuku, DJ Anybs eta DJ Kene, eta Trañabarren etorbidean Jaguar taldea arituko dira.

# Donien Atxa jaso eta mozorro egunagaz emango diete hasiera sanprudentzioei Traña-Matienan

12:00etan Donien Atxa jasota emango diote jaiak San Prudentzio jaiak. Txosnaguneko txupinazoa 13:00etan izango da



lazgo mozorro eguneko argazkia.

Musika jaialdi eta kontzertuez gainera, urtero legez askotariko ekintzak antolatu dituzte San Prudentzio jaietarako. Esaterako,

San Prudentzio egunean umeentzako jolasak eta haurrentzako henna-tailerrak egongo dira; maiatzaren 1ean artisautza azo-

ka, herri kirolak, eta familia ikuskizuna; maiatzaren 3an bertso saioa Maialen Lujanbio, Miren Amuriza, Oihana Bartra

eta Eneko Abasolo 'Abarkas' bertsolariekin, eta maiatzaren 4an paella eta tortilla txapelketak, besteak beste.

**federópticos**  
Apraiz

ONDO PASA JAIETAN!

Trañabarren 13, behea (Abadiño) - [www.federopticasapraiz.com/es](http://www.federopticasapraiz.com/es)

**Parriaundi**

**Parriaundi**  
BERTOKO OGIA · BENETAKO OGIA

**Parriaundi Matiena**  
Trañaetxoste Kalea, 8  
☎ 664 20 44 88

**MOTOS TABIRA**  
KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA ITZULI DA KEEWAY 125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
[motostabira@outlook.es](mailto:motostabira@outlook.es)  
[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

**SERRATU S.L.**

Ondo pasa San Prudentzioetan!

**Galdaragintza eta itxierak**  
Enpresetan mantentze-lanak

Astola, 48 ABADIÑO · Tel.: 946 201 837  
[serratu@serratu.com](mailto:serratu@serratu.com) · [www.serratu.com](http://www.serratu.com)





**GAZTE EGUNA • EKAITZ HERRERA**

Jaietako bigarren zapatuan gozatu dute eurek eurentzat propio prestaturiko egunaz, baina argi dute gainerako egunetan ere kalean, jai giroan, murgilduta egongo direna. Andrea Cuesta, Itsaso Urriz, Ane Urien, Iker Bastarrika eta Eukene Bravo Traña-Matienako Gazte Asanblada osatzen duten kideetarikoz batzuk dira. Lehenengo hirurek 2015ean ekin zioten beste hainbat kidegaz batera Gazte Asanbladan eragiteari. Urteak joan urteak etorri, Asanbladari eutsi diote. Azken biak, osterera, heldu berriak dira. Jaietako Gazte Eguna baliatu gura dute Asanbladara kide berriak erakarri eta haize freskoa sartzeko.

**Orain hutsik dauden plaza inguruak jendez eta jai giroz beteko dira laster. Gogotsu zaudete?**

**Eukene Bravo:** Gogotsu, eta apur bat urduri ere bai. Ikerrek eta biok, adibidez, lehenengoz parte hartuko dugu Donien Atxa altxatzeko lanetan. Gainera, Gazte Asanbladan arituko garen lehenengo aldia ere izango da. Pozik gaude.

**Iker Bastarrika:** Gazte Asanbladan dabilen jendeagaz hasi ginen ibiltzen, eta guk geuk ere bertan sartzea pentsatu genuen. Laguntza eskaini gura genuen Gazte Eguna aurrera ateratzeko.

**Aurtengoa Gazte Egunaren zortzigarren edizioa izango da. Zeintzuk ezagutuz izango dituzte?**

**I.B.:** Emakumearen presentzia indartzean egin dugu ahalegina. Ez da erraza izan, baina programaturiko ekitaldietan ahal bezainbeste emakume batzen ahalegindu gara.

**Itsaso Urriz:** Gure ekintza guztietan



## "Traña-Matienako gazteria guztia gonbidatu gura dugu Gazte Eguna, Donien Atxaren azpian dantzatzera"

Aurtengo Gazte Egunean emakumeak izango dira protagonista, bai oholtzako emanaldietan, bai pregoietan. Bestalde, Gazte Asanbladara batzeko deia egin diete belaunaldi berriei: "Auzoari freskotasuna eskainiko dion Asanblada behar dugu"

izango da emakumea protagonista. Bai oholtza gainean egongo diren artisten artean, bai kaleratuko ditugun pregoietan.

**E.B.:** Aurtengo jaietako egitarauan

emakumearen presentzia handirik ez dagoela ikusi dugu. Horregaitik erabaki dugu Gazte Egunean zehar, egun osoan, emakumearen presentzia bermatuta egotea.

**Zein izango da zuen iritziz Gazte Eguneko ekitaldi nagusia?**

**I.U.:** Niretzat elektrotzaranga izaten da Gazte Eguneko ekitaldirik politena. Jende asko erakartzen du.

Poteo musikatu horrek egundoko giroa sortzen du auzoko kaleetan. Bestalde, kontzertuen artean Sua daukagu, apurka-apurka arrakasta lortzen dabilen taldea. Emaku-

**GESTORIA-ASESORIA**  
**GOIRICELAYA, S.L.**

Jose Maria Escuzo, 26  
48013 Bilbo  
Tel.: 944 412 314  
goiri@goiricelaya.com

Solaguren kalea, 2  
48220 Matiena, Abadiño  
Tel.: 946 814 818  
669 475 116

Tel.: 946 817 464

**ZUHAITZ**  
ZURA ZURE NEURRIRA

clientesabadino@maderaszuhaitz.es  
www.maderaszuhaitz.es

Hiper-Eroski aurrean  
Uribitarte poligonoa F3-4  
Traña-Matiena 48220 Abadiño

**FIRUE**

Txiñurrisol 6, behea  
Traña-Matiena (Abadiño)  
675717344

FIRUE JANARI ETA PRODUKTU EKOLOGIKOAK  
Lurrari lotzen gaituen haria

**VANCOUVER**  
Bar - Cafeteria

Berezitasuna  
askotariko pintxoetan.  
Rabak asteburuetan  
eta jaiegunetan.

Trañabarren Etorbidea, 9 • MATIENA  
Tel. 94 681 70 39

**Z TABERNA ZARRA**

Matiena  
688 613 277

**GISASOLA PENTSUAK**  
**EKOGARDEN**  
FLORES • BIENSO • HUERTU

**GISASOLA PENTSUAK**  
**EKOGARDEN**  
LORAK • PENTSUAK • BARATZA  
TRAÑA • MATIENA • ABADIÑO • BIZKAIA  
TELF: 94 681 65 87  
C/ ZUBIBITARTE 14  
E-mail: gisasola.p@gmail.com

**50**  
El electricidad  
**ANBOTO**  
1973-2023

AUTOMATISMOAK-HARILKATZEAK  
ELEKTRIZITATE-INSTALAZIO INDUSTRIALAK  
AUTOMOZIOARAKO ETA INDUSTRIA-  
ELEKTRONIKARAKO KABLEATZEAK

Tel.: 946 812 433 Faxa: 946 810 996  
www.electricidadanboto.com

Trañapadura industriagunea, C pabiloia, 5. lokala  
48220 MATIENA - ABADIÑO (Bizkaia)

**MATIENA ESTANKOA**

Trañaetxoste, 2  
MATIENA - ABADIÑO  
Tel.: 946 814 033

**ELEKTRODOMESTIKOAK**  
**AREIZAGA**  
Berria!

Tel. eta Fax 946 814 081  
Trañapadura, z/g Behea  
48220 Matiena Abadiño  
areizagaelectro@hotmail.com



meak dira taldeko protagonista, eta segidan egongo diren musika jartzaileen artean ere emakumeak izango dira nagusi. Aurten kaleratuko dugun pregoia ere indartsua izango da. Eguerdikoa, gazte bazkariaren aurretik botako duguna, oso aldarrikatzailea izango da. Eta gauekoa, musika ekitaldien artean egingo duguna ere, ikustekoa izango da.

### Beste ekitaldi esanguratsu bat gazte bazkaria izaten da.

**Andrea Cuesta:** Bai. Aurreko edizioetan 200 bat gazte batu izan gara. Beharbada aurten gutxiago batuko gara, egun berean paella lehiaketa egingo da-eta merkatu plazan.

### Zelakoa da Traña-Matienako Gazte Asabladaren osasuna? Zein belau-nalditako gazteek esku hartzen duzue?

**I.B.:** Iruditzen zait momentu honetan krisialdi moduko bat dagoela. Gazte Asanbladatik tiraka egon den kuadrillak urteetako lana egin du, baina aurrera jarraitzeko prestutasuna apaltzen dabil. Hori dela eta, jende gehiago erakartzeko saiakera egin gura dugu. Egun honetaz gozatzen dugunak gazteak gara, gure proposamenak garatzen ditugunak, lankidetzaz egiten dugunak.

**Ane Urien:** Bai, jende gaztea erakarri gura dugu. Gaur egun Asanbladan gaudenok nagusitxoak gara eta iruditzen zait beharrezkoa dela haize freskoa, Asanbladari buelta bat ematea. Gainera, azken urteotan, Asanblada Gazte Egunaren antolaketan zentratu da, baina urteko gainerako egunetan auzoan

ez dago herri mugimendurik, ez dago gazteek osaturiko herri mugimendurik. Urteak daramatzagu honetan, ekitaldiak antolatzen, kritikak entzuten, baina gero parte-hartzea apala da. Eta horrek asko erretzen du. Auzoari freskotasuna eskainiko dion Asanblada behar dugu. 2015ean hasi ginen elkarregaz antolatzen eta Gazte Eguna egiten. Hasierako urte haietatik hona gauzak asko aldatu dira. Hasieran kohesio bat sortu zen auzotarren artean, girotxo bat. Hori igarri genuen, eta uste dut aurrera begira ere inportantea dela hori mantentzea. Auzoari indarra ematen eta auzotarrak ahalduz jarraitu behar dugulakoan nago.

### Auzolanik bako jairik irudikatzen duzue?

**A.U.:** Ez. Eta auzolan ezaren arriskuak ikusi ditugu jada. Auzotarren parte hartzerik barik ez dakit zelakoa izango zen jai batzordea. Gobernu talde berriak erronka handiak izan ditu, egoera berri bati egin behar izan dio aurre, eta iruditzen zait auzotarren inplikazioa oinarritzkoa izan dela jaien antolaketan. Jaien funtzionamenduan ere halantxik izango da.

### Helarazi mezua hedabide honetako irakurleei: zergaitik etorri Gazte Egunerara?

**E.T.:** Oso egun polita izaten da. Auzoko gazteria guztia gonbidatu gura dut jaira. Elektrotzarangara, Donien Atxaren azpian dantzatzen. Oso momentu ederra izaten da.

**I.B.:** Ondo pasatuko dugu, eta, beraz, etorri daitezela. Modu sano batean gozatu dezatela.



Traña-Matienako gazteriak kaleak hartu zituen iazko Gazte Egunean.

Administración de loterías  
**N.º 1 HIRU**  
*Ondo pasa jaietan!*

San Prudentzio, 2 behea MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 200 457 - loteriahiru@hotmail.com

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR  
**ARRIANDI**  
SUKALDE ETA ETXEKO ALTZARIAK

**santosarriandi.com**  
Urbitate industrialdea, 6 - Lokal 3  
48220 Abadiño  
Tel.: 94 620 26 56  
Mug.: 657 79 38 72  
abadiano@arriandi.com

*Ondo pasa jaietan!*  
**SCHMIDT** ABADIÑO  
Muruetza auzoa z/g  
Eroski Merkatal zentroa  
48220 Abadiño

[www.homedesing.schmidt](http://www.homedesing.schmidt)



# Atxiki pilota eskolako kideek jaurtitako txupinazoagaz zabalduko dute txosnagunea

Atxiki Atxarte pilota eskolatik sortu zen 2022an. Apirilaren 27an bereak jaurtitako txupinazoagaz hasiko dituzte jaiak



Atxikiko kideek iaz ateratako talde argazkia.

## PILOTA ESCOLA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxiki pilota eskola orain urte bi inguru sortu zen Abadiñon, Atxarte pilota eskolatik. Orain, Traña-Matienako txosnaguneak aitortza egingo dio pilota eskolari, egin duen lanarengaitik, eta herriko pilotariak txosnaguneko pregoia irakurri eta txupina jaurtitzeko ohorea izango dute. "Gure lanari eginiko aitortza bat da guretzat. Ematen du egiten gabiltzan lanak efektua izan duela nonbait, edo norbaitek behintzat ikusi duela gure lana. Beraz, hori pozgarria da", azaldu du Iñaki Antxia Atxikiko kideak.

Pilota eskolakoek pregoia oraindino prestatu barik duten arren, argi dute denek parte hartuko dute-

la bertan. "Oraindino ez dugu ezer prestatu, badago denbora. Baina argi daukagu talde moduan zeozer egingo dugula, denok elkartuta", gaineratu du Antxiak.

Egun 60 bat pilotari dabilta eskolan. 16 urtera arteko 40 bat ume daude, beste 9 neska palan jokatzen dute, eta afizionatuetan zazpi gazte daude. Zazpi hauek gehienek trinketean jokatzen dute. Atxikikiko kideak honako hau adierazi du taldearen osasunaren inguruan: "Bagoaz aurrera. Lehen ginenagaz alderatuta, ez du konparaziorik, baina ahaleginduko gara lan egiten, eta ea noraino heltzen garen. Ekimenak antolatzen jarraituko dugu eta ea horregaz herriko umei pilotarako grina sorraraten diegun". Bestalde, frontoiko eta pilota eskolako atea gura duen edonorentzat zabalik daudela jakinarazi dute. "Ateak zabalik ditugu eta herriko umei etortzeko deia egiten diegu. Gainera, giro euskaldunegun egiten dugun kirola da. Beraz, animatu daitezela", gaineratu du Antxiak.

Eroski Bidaiak Matiena/ AZULMARINO  
Trañabarren 11- behea

944 019 767/ 688 739 254 (WhatsApp)  
www.viajesazulmarino.com

**XARMA**  
Fisioterapia eta Osteopatia  
Martine Usabel Lizundia

☎ 673 589 190  
📧 xarmafisioterapia  
✉ fisioterapiaxarma@gmail.com  
📍 Trañabarren 27, Traña-Matiena, Abadiño

tailor-leku usagutzera hurbil zuzaitza  
info +:  
639 052 193  
TAILER-LEKU  
Zubibitarte 13  
Traña-Matiena  
parared.a

**TECLAPLAST**  
SERIGRAFIA INDUSTRIALA

TEKLATUAK KARATULAK PLAKAK ETIKETAK

Traña-Padura industriagunea 95 post. - 48220 MATIENA-ABADIÑO  
Telf. 946202494 - hola@teclaplast.com

**Karmelo Agirre**  
Barne Diseinua  
kolegiatu zenbakia B183 C.O.D.D.B.

Proiektuak,  
**erreformak,**  
altzariak,  
**etxebizitzak,**  
komertzioak,  
**ofizinak**

☎ 610 501 086

**REDHILL**  
LANGUAGE SCHOOL

TALDE TXIKIAK  
CAMBRIDGEKO AZTERKETA  
OFIZIALETARAKO FORMAZIOA  
Zubibitarte 11. Behea ezkerrean  
Matiena, Abadiño  
www.redhilllanguages.com  
redhill.language.school@gmail.com  
Redhill Language School  
Cambridge English  
Exam Approved Centre

**Zainduz**

FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA  
Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374  
PSE: 119 -13

**LASUEN**  
ERAKUNTZA - OBRA ZIBILA - ZABORTEGIAK

CONSTRUCCIONES LASUEN  
Astola auzoa 68  
48220 Abadiño, Bizkaya  
Tel.: 946 81 40 36  
clasuen@lasuen.com

ELECTRICIDAD  
**EGUZKI, S.L.**  
ELEKTRIZITATEA

Arzubia, 10 Apdo.115  
48220 MATIENA - ABADIÑO  
eguzki@elect-eguzki.es  
689 709 602 Jabi  
946 815 201 f: 946 818 658

**Talleres  
Serafín**  
S.Coop

Elorriagazar, 11  
MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 814 807

**TONO**  
ALBAÑILERÍA

Igeltserotza orokorra  
Etxebizitzaren zaharberritzeak  
Merkataritza-lokalak  
Baserriak

GREMIOEN  
KOORDINAZIOA

686 420 383  
946 202 565

Balazta- pastillak / Motelgailuak / Olio aldaketa / Pneumatikoak (marka guztiak)

Uribitarte Industriagunea, 6 48220  
MATIENA - ABADIÑO  
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622  
www.neumaticosetxebarria.com





# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**



# Okm:

## batzen gaituen distantzia

### Abantailak

#### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

#### HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

#### HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreran

#### IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

#### KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

#### LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

#### ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan

#### NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

#### URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua papergintzan

#### LA PERLA

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

#### NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

#### HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan

#### URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan

#### EILEKE

#### Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotrizitatea

- %15eko deskontua saio solteetan





**> anboto**  
**kide**

### **TABIRA BITXIDENDA**

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan

### **PSIKOLOGIA AMOREBIETA**

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan

### **KEINU OPTOMETRIA ZENTROA**

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua

### **GAU-TU**

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atsedeen sistemetan.

### **SOLOZABAL ALTZARIAK**

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeke aire-gozagarrietan izan ezik)

### **URKIOIL GASOLINDEGIA**

- Izurtzako eta Otxandioko Urkioil gasolindegietan 3 zentimo litroko deskontua.

### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

**Berria!**

### **OSASUN ETXEA**

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, ur eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline). Opari bat emango da.

**Berria!**

### **ZELAI ALAI**

- Udalekuetan %10eko deskontua

**Sartu zure komertzioa  
Anbotokideen deskontu sarean.  
Atera etekina abantailei!**



**Egin zaituz ANBOTOKIDE  
eta baliatu abantailez!**





## 'Shine'

DANTZA DURANGO :: Apirilak 20

### Lasala konpainiak 'Shine' dantza ikuskizuna egingo du Durangon

Lasala dantza konpainiak, autoesklabotzaren ereduaren bitartez, gorputzaren objektualizazioa, hedonismoagazko adikzioa, epelaburtasuna eta ihesbidearen bilaketa etengabea lantzen dituen ikuskizuna egingo du zapatuan, Durangon: *Shine*. Emanaldia San Agustin kulturegunean izango da, 19:00etan.

Judith Argomanizek zuzentzen duen dantza garaikideko konpainiak 10 urte egin zituen iaz, eta urteurren horren inguru-

ruan sorturiko obra da *Shine*. Azaldu dutenez, tekno musikaren zalaparta burrunbatsiak eta zertan sinetsi bilatzen dutenen saetek zoratuta, zortzi gorputz estasiaren arrakastapera jausten dira —estasia funtsezko droga baita enpatiarik bako munduan ibiltzeko— eta gure orainak zuzenduriko koreografia lantzen dute: erritual berriak, zenbait kultu grinatsu eta asmatuak erlijioak hartu beharra.

### Apirilaren 19an

**ABADIÑO bakarrizketak**  
**'Arre edo So' (Ana Goitia eta Mirari Martiarena)**  
+ **'Euskaldunen jatorria, historia eta irria' (Ion Martinez 'Txiki')**, 19:30ean, probalekuan (Lasterbidean).

**DURANGO lehiaketa**  
**'Labur esanda' film laburren lehiaketarako gaia, objektua eta esaldia**, 16:00etan, Plateruenean. Berbaro elkarte.

**ELORRIO kontzertua**  
**Zoe Igartiburu + Rudiger**, 22:00etan, Arriola antzokian.

**IURRETA antzerkia**  
**'Conquistadores' (Proyecto Cultura)**, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

**MAÑARIA bertsoak**  
**Bertso afaria: J.Uria eta U.Iturriaga**, 21:00etan, Arri Tokin. Gai jartzailea: E. Abasolo 'Abarkas'. Izena emateko: 616 332 296 (Lasterbidean)

**OTXANDIO jolasak**  
**Erronka jolasak eta argazki erraldoia Lasterbidean ekimena bultzatzeko**, 18:30ean, plazan. Izena emateko, Txokuen.

**ZORNOTZA kontzertua**  
**Arene 6 + Streetwise**, 23:15ean, Zelaietan.

### Apirilaren 20an

**BERRIZ kontzertua**  
**Mibuenaventura + Taghufi + Dj Sonido Jungle**, 22:00etan, gaztetxean.

**DURANGO film laburrak**  
**'Labur esanda' lehiaketako lanen emanaldia**, 22:00etan, Plateruenean.

**DURANGO ekitaldia**  
**Kurutziaga bildumako liburu erakusketa (Vicente Zavala elkarte)**, 10:00etan, Andra Mariko elizpean.

**Durangoko kale eskulturak ezagutzeko bisita gidatua**, 10:30ean, Ezkurdiko iturrian. Izena emateko: 946818066 / [gerediaga@gerediaga.eus](mailto:gerediaga@gerediaga.eus)  
**Bogoroditsie abesbatzaren eta Durangoko Orfeoiaeren entsegu irekiak**, 11:00etan eta 12:00etan hurrenez hurren, Kurutze Santu museoan.  
**JAEDen 60 urteko bidearen erakusketa, Andra Mariko elizpean (11:00-14:00)**.  
**Asebier Euskadiko gaixotasun arraroen elkartearen mahai informatiboak**, Ezkurdin (11:00-14:00).

**GARAI jaia**  
**VI. Sagardo Eguna**, 18:30ean, DJ Bullek girotuta.

**IURRETA tailerra**  
**'Nolakoak dira gure harremanak?'**, 17:30ean, Abadetxean. Durangaldeko Neska Gazteen Biribilketa.

**IURRETA kontzertua**  
**Meison + Kohatu + Dj Kuku**, 22:00etan, gaztetxean.

**IURRETA irteera**  
**Bizikletan irteera Legutiora**, 09:00etan. Iurretako Txirrindulari Elkarte.

**OTXANDIO bertsoak**  
**Durangaldea Uztabarritzen IV. Bertso Zirkuitua: J. Arrizabalaga, A. Arzallus, G. Lazkano eta I. Galarza**, 18:00etan, Bolalekuan. Gai jartzailea: Otxandioko Bertso Eskola.

**OTXANDIO udaberri jaia**  
**Mendi martxa Motxotegira Castillo parke eolikoan aurka**, 09:30ean.  
**Poteo girotua**, 13:00etan.  
**Bertso bazkaria**, 14:30ean gaztetxean.  
**Jolasak eta koktelak**, 15:30ean plazan.  
**Trikoma + Neallta Fola**, 22:00etan gaztetxean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Kortxoaren dilema' (Tartean)**, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

### Apirilaren 21ean

**DURANGO ekitaldia**  
**'Bizipen eta soinu terapiak' formakuntza saioak**,

11:30ean, Landako sotoan.  
**Jaizaleko txistulariak**, eguerdian, Alde Zaharrean.  
**Arte martzialak (Wadokan)**, 12:00etan, Ezkurdin.

**GARAI azoka**  
**X. Landare eta Lorazaintza Azoka**, goizean, plazan.

**IURRETA irteera**  
**Bizikletan irteera Zararamora**, 09:00etan. Iurretako Txirrindulari Elkarte.

### Apirilaren 22an

**IZURTZA antzerkia**  
**'Uxa-Uxa beldurra' (Naita Produksioak)**, 18:30ean, liburutegian (3-8 urte).

### Apirilaren 24an

**ABADIÑO ipuinak**  
**Sorgina txirulina**, 17:00etan, Errota kultur etxean (4-8 urte).

### Apirilaren 26ra bitartean

**DURANGO erakusketa**  
**'Wanted. Identitatea'**, Fray Juan Zumarragako batxilergo artistikoko ikasleen lanak, San Agustin kulturegunean.

## Zinema

**:: Berriz**  
**KULTUR ETXEA**

• **La familia Beneton**

barikua 19: 17:00

domeka 21: 17:00

**:: Durango**  
**ZUGAZA ZINEMA**

• **Civil war**

barikua 19: 18:30 / 21:00

zapatua 20: 19:15 / 21:30

domeka 21: 19:30

astelehena 22: 18:00 / 20:15

martitzena 23: 18:00 / 20:15

eguztiena 24: 19:00

• **Abigail**

barikua 19: 18:30 / 21:00

zapatua 20: 19:15 / 21:30

domeka 21: 19:30

astelehena 22: 18:00 / 20:15

martitzena 23: 18:00 / 20:15

eguztiena 24: 19:00

• **El salto**

barikua 19: 18:30 / 21:00

zapatua 20: 19:15 / 21:30

domeka 21: 19:30

astelehena 22: 18:00 / 20:15

martitzena 23: 18:00 / 20:15

eguztiena 24: 19:00

• **Dragoi jagolea**

zapatua 20: 17:00

domeka 21: 17:00

• **Guardiana de dragones**

zapatua 20: 17:00

domeka 21: 17:00

**:: Elorrio**  
**ARRIOLA ANTZOKIA**

• **Desconocidos**

zapatua 20: 20:00

domeka 21: 20:00

astelehena 22: 20:00

**:: Zornotza**  
**ZORNOTZA ARETOA**

• **La familia Beneton**

barikua 19: 20:00

domeka 21: 20:00

astelehena 22: 20:15

• **Un rey supermono**

domeka 21: 17:00

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



# Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albistek jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



***Bidali 'ALTA'***

***688 635 041***

***telefono zenbakira***

\* Izan zaitetz berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak

**anboto**



# “Berrizen, hainbat belaunaldi batzen duen eszena dago; elkarri lagunduz, errazagoa da dena”

Kohatu eta Meison talde berriztarrek egun berean publikatu dituzte euren lan berriak; aurkeztu ere elkarregaz egin zituzten, Berrizko Hiltegixen; eta zapatuan elkarregaz emango dute kontzertua, lurretako gaztetxean, 22:00etan

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Badira uste dutenak ez dela garairik onena gitarra doinuentzat; hala ere, lurrazpian bada ere, mugimendua egon badago. Horren adibide bat Berrizen izan da oraintsu. Izan ere, Kohatu eta Meison talde berriztarrek lan berriak kaleratu dituzte. Kohatukoek euren ibilbideko bigarren diskoa publikatu dute, *Anabasari deiadar*. Hileetako lanaren ondoren, gogotsu daude eginiko lan horren emaitza zuzenean aurkezteko. “Oskolak debuteko lana kaleratu, kontzertu bi eman, eta pandemia betean sartu ginen. Beste kontzertu bi eman genituen gerora, baina nahiko behea jota zegoen dena. Jotzea posible izan zen garairako, diskoa zahartu egin zela iruditzen zitzaigun, abestiek ez gintuzten hainbeste motibatzen”, azaldu du Martin Sarasketak bateria-jotzaileak; Sarasketak, Joseba Romerok (gitarra eta ahotsa) eta Imanol Taberak (baxua) osatzen dute hirukotea. Bigarren lan hau Meison lagunekin aurkeztu zuten, Berrizko Hiltegixen, apirilaren 5ean; zapatu honetan, hilak 20, lurretako Abadetxean elkarregaz joko dute berriro. “Betiko lagunak gara, gogotsu gaude elkarregaz jotzeko

**Diskoan galdera asko egiten dugu, zein den bide zuzena edo okerra, lan munduaren prekarizazioa, gizartean dagoen lehiakortasuna, heriotza...**

eta mugitzen hasteko”, gehitu du Sarasketak. Meison taldeko kideak ere ilusioz gainezka daude. “Hainbat belaunaldi egon dira Berrizen rocka jorratzen, eta gu euren ondoren hasi gara”, azaldu du Unai Unzuetak. “Aste berean, Kohatuk bigarren lana eta guk eta Ejek ere kaleratu dugu geu-

rea. Sekulako poza eragiten digu gure inguruan musika sortzeak. Gainera, eskertzen dugu horrelako taldeek guri lagundu izana, elkarri laguntzen diogunean bidea errazagoa delako denontzat”.

Unzuetak (gitarra), Ibon Azpirik (baxua) eta Aiert Agirrek (bateria) 2020an sortu zuten Meison, doinu freskoak ontzeko gogoz, eta orain kaleratu dute *48240* debuteko lana. “Musika asko entzun izan dugu beti, eta nahasketa horri ahots melodikoa eta pop melodiak gehitu dizkiogu”, esan dute. Influentzia modura, Turnstile, Basement, Title Fight eta La Plata taldeak aipatu dituzte. “Era horretako taldeak hartzen ditugu eredu lez soinu aldetik, baita konposatzerakoan ere”, argitu dute. Bestalde, hirukoteak bizkaieraz abesteko hautua egin du. “Ez da bizkaiera jaso, kalean egiten duguna baino. Alde batetik, estetikoki taldea bereizten duela uste dugulako, eta erosoagoa egiten zaigulako; bestalde, hautu politikoa ere izan daiteke, gurago dugulako euskarazko talde gehiago egotea”, azpimarratu dute.

## Hobe lagun artean

Doinuak sortu eta aurkeztu ez ezik, musikazaleen artean ekosistema bat eraiki dute. Horrela, *48.240* diskoaren grabazioaz Imanol Jareño berriztarra arduratu da. “Gure laguna izateaz gainera, Aierten taldekidea da Duben, eta Ibonena izan zen Etsipen taldean. Guretzat sekulako aukera izan da kalitatezko grabazio bat egiteko, eta oso pozik gaude emaitzagaz”, azaldu du Unzuetak; grabatu ere herrian bertan egin dute, entsegu lokaletan. Diseinuaz Sergio Devesa zaldibartarra arduratu da. Irudiak sortzeaz gainera, Devesak bateria jotzen du Ezta Ilen, Worth It eta Unfix taldeetan, besteak beste. Bestalde, Kohatuk Eñaut Gaztañagaren Gaztain estudioetan grabatu zuen lana.

## Anabasari deiadar

Aurreko diskoari loturiko beheraldia gaindituta, Kohatuk be-



te-betean ekin zion abesti berriak sortzeari, eta horrek lotura du emaitzagaz. “Pandemiatik hasita, mundua zelan nahastu den begira-

tzea baino ez dago. Eroso egotetik, dena birplanteatu eta berrikusi beharrera igaro gara. Diskoan galdera asko egiten dugu, zein den

bide zuzena edo okerra, lan munduaren prekarizazioa, gizartean dagoen lehiakortasuna, heriotza...”, azaldu du Martin Sarasketak.





Rüdiger.

## Felix Bluffen Rüdiger taldeak kontzertua emango du Ateneoan

Gaur izango da kontzertua, 22:00etan; Zoe Igartiburu elorriarrak joko du aurretik

### MUSIKA • A. M.

Elorriko Ateneoko ekimena ikas-turteko azken emanaldia izango da, gaur. Bertan, Rüdiger eta Zoe Igartiburu arituko dira. Rüdiger Felix Buff bateria-jotzailearen bakar-kako proiektua da. Buff, batez ere Willis Drummond taldeko kidea izateagatik da ezaguna; hala ere, dozenaka proiektutan parte hartu du; besteak beste, Joseba Irazoki, Atom Rhumba, Mikel Erentxun, Duncan Dhu, Napoka Iria eta Botibol artistekin lan egin izan du. 2020an *Before it's vanished* lehenengo lana kaleratu zuen, eta iaizko urte amaieran *The dancing king*. Lehe-

nengo diskoagaz bat baino gehiago aho zabalik utzi eta gero, bigarren lanagaz oraindino zale gehiago batuko ditu musikariak. Izan ere, bere proposamen honetan gehiago sakondu du. Gainera, Willis Drummond egin duen geldialdiak zuzeneko gehiago emateko aukera eman dio. The Beatles taldearen eragina nabaria da lan honetan ere, baina psikodelian bidaiatzeko lizentzia ere hartu du musikariak. Bira honetan, Joseba Irazoki (gitarra), Vincent Bestaven (teklatuak), Antoine Philippe (baxua) eta Mikel Sanchez (bateria) igoko dira taula gainera Buffegaz batera.

Aurtengo zikloak bost gaualdi izan ditu, eta, besteak beste, Nakar, Mice, Sei Sega, Haira eta Ezta Ilen taldeek emango dituzte kontzertuak.

### Igartibururen debuta

Bestalde, Zoe Igartiburu elorriarraren debuteko kontzertua ere izango da gaurkoa. Gazteak hiru single kaleratu ditu azken sasoiari, *Not my fault*, *December* eta *Maybe with you*, eta horiek zuzenean aurkezteko aukera izango du gaur. Emanaldia 22:00etan hasiko da eta sarrerak momentuan bertan erosi ahalko dira, zortzi euroan.

## Tarteanen azken lanak etika, traizioa eta mendekua batzen ditu

'Kortxoaren dilema'-n Patxo Telleria eta Mikel Martinez dira protagonistak; zapatuan izango da emanaldia

### ANTZERKIA • A. M.

Mikel Martinez aktorea Irakaslea da, etika eta filosofia politikoan katedraduna den jubilatuz ezketiar bat, polemikoa eta itzal handikoa. Pronostiko eskaseko minbiziak detektatu diote eta duen irtenbide bakarra aberats ospetsu batek osasun sistema publikoari dohaintzan eman dion radioterapia tratamendua da. Printzipioekiko leiala izan edo bizitza salbatzearen artean erabaki behar du; horretan dela helduko da Irakaslea, Patxo Telleria. Mendekua, etika, kohe-

rentzia eta trazioa batzen dituen thriller politikoa antzeztuko dute Zornotza aretoan. *Kortxoaren dilema* antzezlan Mireia Gabilondok zuzendu du. "Duen trama eroak endreduzko komedia bihurtzen du antzeztan hau. Eta politikoa da, pertsonaia amildegia ertzean kokatzen dituelako, bizitza bera jokatzeraino printzipio politiko batzuk mugaraino eramanez gero", azaldu dute konpainiatik. Tartean konpainiak 2023ko azaroan estreinatu zuen antzeztan hau, Bilboko Arriaga antzokian.



'Kortxoaren dilema'. PÍO ORTIZ DE PINEDO

## Gai librean

### Ametsen eraiste neurtua

Umeak ginenean Murueta Torren bizi zirenak autobusez etortzen ziren Ikastolara. Landako ingurua mortu zegoen garai hartan, eta trenbidearen alde batetik besterako joan-etorriak odisea bat bailiran bizi genituen garaiotako umeok. Ikastolara oinez joateko adinarekin batera ikusi genuen Plateruena jaiotzen. Geroago hiltzen ere ikusi dugu, eta batek daki inoiz berpiztuko ote den ala ez.

Erdibidean zegoen Sapuetxen ikasi genuen antzerkigintza, musika eta literaturaz gain, kultura askoz gehiago ere badela, eta urte batzuk geroago, gure aurreko belaunaldikoek eraikitakoa hormigoizko hondakin bihurtuta ikusi genuen. Aldapan behera eginda, sarri bisitatzen genuen San Agustin Kultur Gunea, eta Arantzari



Miren Erdoiza Mujika  
Irakaslea

### Atera ginen Ikastolatik, eta Sorginolaz erditu ginen, eta umei mundu honek nola, eraitsi ziguten guri ere ametsa

eta Mainerri esker ikasi genuen askok antzoki bat etxe sentitzen. Atera ginen Ikastolatik, eta Sorginolaz erditu ginen, eta umei mundu honek nola, eraitsi ziguten guri ere ametsa.

Lau eta erdiak jotzearekin batera konkistatu dugu udaletxeko plaza

### Historia errepikatu da, ordea, eta, berriro ere, neurtutako eraistea Durangon

zenbait umek, eta ikusi dugu posta-etxea jendez lepo, eskutitzak eta paketeak bidaltzeko esperoan, amaierarik gabeko ilarak egiten. Txikiak ginela ikusi genuen nola zerion kea eraikinari; protesta egin guran Correos barruan sua egin zutela esan ziguten gurasoek, eta ikusi dugu ere nola egin garen heldu, eta nola aulki eta mahaiek irabazi duten plaza horretako gerra.

Umeek bezala, kulturak ere behar du plaza bat. Etxe bat. Umeek bezala helduok ere behar dugu nora joan, zer bisitatu. Badaukagu zer kontatu, noski; eta badugu nork entzun. Baditugu begiak, belarriak, ahoak. Baditugu ahotsa, burua eta arima. Baditugu istorioak eta ametsak.

Historia errepikatu da, ordea, eta, berriro ere, neurtutako eraistea Durangon.





**Txaber San Pedro Novoa**

Mendi bizikleta

**ELORRIO | 1984**

## “Teiden, goizaldeko ordu bietan eta lur jausi arriskuagaz; egoera horretan ikusi nuen neure burua”

Txaber Agirre elorriarrak Granguanche 'non stop' proba egin du Kanariar uharteetan. Bost etapatan banatuta ia 800 kilometro egin ditu, 17.000 metroko desnibel positiboagaz. Etapa batetik bestera, irlaz aldatu behar izan du, hamaika oztopo gaindituz

**MENDI BIZIKLETA • JOSEBA DERTEANO**  
Odisea handi bat izan da. Dela bizikleta matxuratu zaiolako, dela ferrya galdu duelako, dela 'track'-ak okerreko ibilbidetik bidaltzen zuelako... Oztopo bat gainditu orduko beste bat sortzen zitzaion. Dena bertan behera uztekoan izan da momentu batean baino gehiagotan, baina burugogorra izaki eta familiaren bultzadagaz, erronka guztiak gainditzea lortu du. Bizitako abenturen bideo kronikak @xelaitxo Instagram kontuan ipini ditu.

**A zelako odisea bizi izan duzun, Txaber.**

Benetan be. Lehenengo etapako goizaldean bizikletako aldagailua apurtu zitzaidan. Lanzaroteko basamortuaren erdian, katea bizikletan zintzilik neukan. Imaginatu nire umorea! Une horretan, probatik kanpora ikusten nuen neure burua. Ez naiz trebea mekanika kontuetan, baina Youtuben bilaketa bat eginda, barruko torloju bat estutu eta aldagailua konpontzea lortu nuen... baina ez guztiz. Piñoi bi baino ezin nituen igo eta jaitsi. Ondorioz, ordutik aurrera, aldats gora ezinean nindoan, garapen txikiegiagaz, eta aldats behera, oster, neukan dena eman ezinda. Baina, tira, amaitu nuen etapa zelatan.

**Baina bizikletak matxuratuta jarraitzen zuen.**

Biharamuna domeka zen. Goizeko seietan ferrya hartu nuen, Fuerteventurara. Domeka batean, non aurkituko nuen bizikleta konpontzeko denda bat zabalik Fuerteventuran? Inon ez. Goma bategaz nik neuk beste konponketa txiki bat eginda eta bizikleta piñoiaren bat gehiago aldatzeko moduan ipinita, beste 160 kilometro egin nituen, aldats gora sekulako ahaleginak egiten eta aldats behera denbora galduz. **Etapa apur bat laburtxoagoa izan balitz...**

...Kanarietarako ferrya hartuko nuen. Ni heldu baino 20 bat minutu lehenago irten zen. Portutik gertu gela bat alokatu eta han eman nuen gaua, oso nekatuta. Biharamunean portua zela uste nuen tokira joan nintzen, baina ez zen han, urrunago zegoen. Bertaratu nintzenerako ontziratzea itxita zegoen eta 20 bat lagun portuan geratu ginen, itsasontziari agur egiten. "Dena niri gertatu behar zait?", pentsatu nuen. Eguerdian hartu nuen Kanarietarako itsasontzia. Han bai, han bizikleta konpontzea lortu nuen, denda batera eramanda. Zelako poza! Etapari aurre egiteko animoa eman zidan.

**Azkenean argi apur bat.**

Benetan be. "Txar guztia pasatut, aurretik datorren guztiak ona izan behar du", pentsatu nuen. Eta eskerrak aldagailua konpontuta neukala, ze aurretik zetorrena ez zen edozer: Kanarietan 3.600 metroko desnibela nuen, eta Tenerifen 4.200ekoa. Kontuak kontu, bazkaldu eta etapari topera ekin nion! Beste poz bat hartu nuen handik gutxira. Kotxe batetik bozina jo zidaten. Burua biratu eta... Euskal Herriko lagun batzuk! Kanarietan oporretan zeuden, eta gure GPSak irekiak zirenez, han bilatu ninduten. Eta aurkitu ere bai. Ilusio handia egin zidan.

**Bizipoz dosi guztiak ondo datoz horrelako proba batean.**

Jakina! Azkenean ordu asko dira bizikletan, eta ordu asko bakarrik. Fisikoki gogorra da, baina oraindino gogorragoa da psikologikoki. Oztopo asko sortu daiteke bidean. Mentalki lan handia egin behar duzu zeure burua animatzen.

**Ordu asko dira bizikletan, eta bakarrik. Fisikoki gogorra da, baina oraindino gogorragoa da psikologikoki**

**Goian amaitu zenuen eguna.**

Bai. Tira, afaltzeko tokia txarto kalkulatu eta afaldu barik geratu nintzen, baina pasaturiko guztia pasatuta... hori ez dut desgrazien zerrendan sartuko (barrez). Zurezko mahai batean lo egin nuen, orubetez. Trapu bat eginda hartu nuen Teneriferako itsasontzia. Hurrengo eguneko arratsaldera arte ez neukan ferryrik El Hierroko, eta, denbora nuenez, Tenerifeko etapa zati bitan banatzea erabaki nuen, bien artean atsedean hartzeko gela bat hartuta. Kontua da nekearen nekeaz ezin izan nuela lorik egin. Horrela hasi nintzen Teide mendia igotzen, gaez. Zelako aldatsak dauden Kanarietan eta Tenerifen! Halakorik!

**Eta orduan amaitu zen ekaitzaren osteko barealdia.**

Telefonoa jotzen hasi zen momentuan bertan. Hartu nuen. Antolakuntzakoak ziren. "Txarto zoaz, Txaber, ibilbidetik kanpora zaude", esan zidaten. Baina zelateke? GPSari jarraitzen nenbilkiola, aurtengoari barik. Akatsen bat egon zen track-ak bidaltzerakoan. Ez hori bakarrik: zonalde hartan lur jausi arriskua zegoela eta handik lehenbailehen irteteko eskatu zidaten. Teiden, goizaldeko

ordu bietan eta lur jausi arriskuagaz. Egoera horretan ikusi nuen neure burua. Bide berri bat bilatzeko, 800 metroko desnibela jaitsi behar izan nuen eta... berriro aldats gora. Baina zelako aldatsak! %28, %30... markatzen zidan erlojuak. Ordu eta erdian bizikleta eskuan hartuta, eta oinez. Egia esanda, une horretan psikologikoki hondoa jo nuen. Emazteak telefonoz deitu zidanean, etsi egingo nuela esan nion. "Ezta pentsatu ere", agindu zidan. Esan zidan ez zela astebetean gure hiru seme-alabekin geratu nik etsi nezan. Arrazoi zuen. Beste batzuk ahalegin handia egiten zebiltzan ni han egoteko. Egoerari aurre egin behar nion. Bere bultzada oso garrantzitsua izan zen niretzat. Aupada horri eskerrak amaitu nuen etapa. Azken etapen, El Hierrokoan, bizikletaren balaztagaz izan nituen arazoak, baina amaitzea lortu nuen. 130 partaidetarik 30. izan naiz.

**Bizikletak ere sufritu du berea proba horretan.**

Oraindino tailerlean dago. Horregaz dena esaten dizut. Zegoen moduan eramane nuen Elorriaga bizikleta dendara, poltsa eta guzti. "Zaindu ondo, mimatu eta pasatuko naiz bila", esan nien. Balazta, erruberak... Konponketa asko behar ditu.

**Granguanche izan da egin duzun tankera horretako probarik gogorrena?**

Fisikoki ez. Nire lehenengo 'non stop'-a Euskal Herriko Basajaun proba izan zen. Pandemia aurretik bizikletan nabilenetik egin dudan erronkarik gogorrena da. 840 kilometro eta ia 17.000 metroko desnibel positiboa.

**Mentalki hondoa jo nuen. Emazteak deitu zidanean amore eman behar nuela esan nion. "Ezta pentsatu ere", agindu zidan**

**Baina Kanariar uhartekoak muturren eraman zaitu mentalki.**

Hori bai. Basajaunen izan ez nituen bestelako arazoak izan ditut, kontatu ditudan guztiak. Gainera, ez nengoen etxetik gertu. Laguntza oro urrun zegoen. Neuk atera behar nituen babak eltzetik. Baina egoera guztiei aurre egin nien eta harro nago. Esandako moduan, urte gutxi dira bizikletan nabilenetik. Ez naiz oso txirrindulari fisikoa, baina bai burugogorra, eta horrek emaitzak ematen ditu. Horregaz geratzen naiz eta baita gozatu ahal izan ditudan paisaiekin ere. Bizikletan paisaiak kotxez eta oinez ez bezala gozatzen dira. Mundua beste era batera ikusten da.



# Amorebieta salbaziotik puntu batera kokatu da azken bost jardunaldietan hamahiru puntu batuta

Iker Unzueta abadiñarrak garaipenaren gola sartu zuen joan zen asteburuan Levanteren kontra jokatu zuten partiduan; Jon Morcillo zornotzarrak ere zulatu zuen atea Sporting Gijonen kontra aurreko partidu erabakigarri batean

## FUTBOLA • J.D.

Otsailetik hona aldatu egin zaio panorama Amorebietari. Nortasun handia erakutsiz, taldeak erreakzionatu egin du zuloan zegoela, eta meritu handiko emaitza bolada darama. Azken bost partiduetatik lau irabazita, azken laugarren tokian kokatu da sailkapenean, eta orain puntu bakarrera du salbazioa.

Taldea golegile dabil. Hamar gol sartu ditu azken bost partiduetan. Aurretik, 22 gol zeramatzan 32 partidutan. Aldea nabaria da. Alderdi horretan, eskualdeko jokalarien ekarpena ere azpimarratu beharra dago. Iker Unzueta hiru gol daramatza ligan, eurretan bi azken jardunaldi bietan. Racing Ferrolen kontra sarturiko penaltia markagailua borobiltzeko balio izan zuen (3-1), baina joan zen asteburuan Levanteren zelaian sarturikoa funtsezkoa izan zen partidua irabazteko. Bana zihoazela, Unzueta garaipenaren gola sartu zuen azken minutuetan zelairatuta jokaldi eder bat egin eta gero. Kontraeraso batean, zelai erdian baloia jaso, atzelariari izkin egin, aurrera azkar egin, eta ate aurrean azpitik gurutzatu zuen baloia. Urte hasieran taldera batu zenetik —Por-



Iker Unzueta Levanteren kontrako gola ospatzen, joan zen asteburuan. LALIGA HYPERMOTION

tugalgo Vizela taldeak utzita— jokatu dituen minutuetan ederto aprobetxatu ditu aukerak aurrelari abadiñarrak. Jon Morcillo, bere aldetik, gol bi daramatza, eta biak garrantzitsuak. Bata Romaredan hiru puntuak batzeko balio izan zuena, falta jaurtiketa bikain bati eskerrak. Bestea orain jardunaldi gutxi Sporting Gijoni sarturikoa, taldeak markagailuan aurrea hartzeko balio izan zuena.


Taldeko Lgolegile nagusia Eneko Jauregi muxikarra da, sei golegaz.

## Falta diren partiduak

Bigarren Maila hain dago parekatuta ze, ia denek dutela zeozter jokoan. Despistatzen dena jaitzieraren atarian egon daiteke bat-batean, edo igoeratik kanpora. Testuinguru horretan, Eibarren, Valladoliden, Espanyoln eta Burgosen kontrako partiduak

bereziki gaxak izango dira, laurak igoerako borrokan bete-betean sartuta daudelako. Mirandesen eta Vila-real B-ren aurkako neurketetan ere ez da tentsiorik faltako, Amorebietaren aurkari zuzenak direlako. Sailkapenari erreparatuta, une honetan Tenerife da jokoan gutxien duena, eta egoera horretan hiru puntuak batzeko irteera aproposa izan daiteke urdinrentzat.

## Ruiz de Infantek Ados binakako txapelketako finala jokatu du zapatuan



Ruiz de Infante. EDUARDO AGIRRE.

## PILOTA • E.H.

Ainhua Ruiz de Infantek Ados txapelketako binakako finala jokatu du zapatuan, Antzuolan (Gipuzkoa). Pilotari otxandiarra Leire Galeano antzuolarragaz batera lehiatuko da, Maddi Berrocal bergararrak eta Naroa Agirre zestoarrak osaturiko bikotearen kontra. Bikote biak lehen mailako txapela eskuratzeko borrokan ibiliko dira. Euren partida jokatu baino lehenago, promozio mailako finala jokatu da. Ibarrolak eta Bertizek Aranbururen eta Arrastiaren aurka jokatu dute finala. Partiduak 18:00etan hasiko dira.

Ados pilota elkarteak abenduaren erdialdean aurkeztu zuen binakako txapelketa nagusia. Orduetik hona, promozio mailan lau bikote eta lehen mailan zazpi ibili dira lehia txapela eskuratzeko.

## Jokaldia

### Elkartea otzan

2020ko urriaren 19an, greba betean, sortu zuten Pilotarien Elkarte lau pilotarik: Altunak, Ezkurdiak, Olaizolak eta Urrutikoetxeak. Pilotari grebalariei gehiengo zabalak bat egin eta astebe-tera grebaren amaiera iragarri zuten, "grebalariei aldarrikapen ia guztiak" eskuratu ondoren. Haien artean, garrantzitsuena, kaleratuak izan ziren lau pilotarien kontratuak berritzea izan zen. Harrezkerotik, ordea, ez dugu elkartearen berririk izan, eta urteotan enpresek erabaki bidegabeak hartzen jarraitu duten arren, besteak beste pilotarien eskubideen alde borrokatzeko sortu zen taldea agertu ere ez da egin. Azken ia bi hilabeteotako hiru hauek izan daitezke, beste batzuen artean, erabaki salagarrien adibide:



Iñaki Iza Zarazua  
Pilotari ohia

### Enpresek erabaki bidegabeak hartzen jarraitu duten arren, pilotarien eskubideen alde sortu zen taldea ez da agertu

Hasteko, iragan otsailaren 28an Aspek 25 urteko Aaron Arbizuri kontratua berrituko ez ziola iragarri zuen, profesionaletan 23 hilabete soilik eman ondoren. Pilotaria enpresaren erabakia-ekin haserre agertu bazen ere, inork ez zuen ahotsik altxatu bihozgabekeria horren aurrean. Bestalde, azken urteotan ohiko bihurtu dute bigarren mailako buruz buruko txapelkunek aurre kanporaketa bat jokatu behar izatea lehen mailako txapelketan sartzeko. Aurten, Bakaikoak jasan du injustizia hori eta, bitartean, pilotarien eskubideak defendatzeko antolatuta zuten elkarte mutua.

Bukatzeko, azken erabaki polemikoa Peio Etxeberriaren kaltean izan da. Enpresaren erabakiz, bere kirol ibilbideko momenturik onenean eta binakako txapelketa nagusiko txapela irabazi eta bi egunera, buruz burukotik kanpo utzi zuen Aspek, martxotik Zumaian jokatzeko iragarritako zegoen arren. Egia esan, erabakiak berak baino gehiago harritu nau berau onartzeko naturaltasunak.

Honekin guztiarekin, Pilotarien Elkartearen sorrerari buruz 2020an izan nituen susmoak berretsi baino ez dira egin urteotan. Orduan, elkartasunetik baino, norberekeriatik eratu zela iruditu zitzaidan; buruz buruko txapelketaren geldialdiak eragindako itoak bultzatuta, alegia. Lau urte geroago enpresek berdin jarraitzen dute; elkarte, aldiz, otzan.



# DURANGALDE



## Aratz Azpiriren erakusketa

Aratz Azpiri Maurtua artista durangarraren lanak batzen dituen erakusketak gaur zabalduko ditu ateak. Durangoko Ezkurdi aretoan zazpi margolan, zazpi eskultura eta bide instalazio bat ikusi ahalko dira. Hilaren 28ra arte egongo da ikusgai, ordutegi honegaz: astelehenerik barikura 18:00-20:00 eta asteburuan 12:00-14:00/18:00-20:00.






# KO TXOKOAK!






# ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK

## Eskelak eta oroigarriak paperean




**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela




*Testua / olerkia*

Familiakoak



**Izena Abizena  
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren  
13an, 85 urte zituela



*Testua / olerkia*

Familiakoak

2x2  
modulo

**Prezioa**

Paperean edo webgunean **75 €**  
**Anbotokideek 65 €**

Paperean + webgunean **115 €**  
**Anbotokideek 105 €**

3x2  
modulo

**Prezioa**

Paperean edo webgunean **110 €**  
**Anbotokideek 100 €**

Paperean + webgunean **150 €**  
**Anbotokideek 130 €**

## Eskelak webgunean

ESKELA

**Izena  
Abizena Abizena**



DURANGO

2022ko maiatzaren  
30ean hil zen.

ESKELA



**Izena Abizena Abizena**

*Testua / Olerkia*

*Durango, 2022ko maiatzaren 30ean*

### Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.





## Botikak

**BARIKUA, 19** - 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO  
GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO  
IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA  
SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 20** - 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI PLAZA 8 -  
DURANGO  
MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 -  
DURANGO  
DE DIEGO, INTXAURRONGO  
22. - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 -  
DURANGO  
ETXEBARRIA, MONTEVIDEO ETORB. 2. -  
DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA, TRAÑABARREN 15 -  
ABADIÑO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 -  
ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 -  
ZORNOTZAIUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 -  
IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 21** - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A. ABASOLO 2 -  
DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 22** - 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE KAPANAGA 3 -  
IURRETA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 23** - 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 24** - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE  
2C - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 25** - 09:00-09:00

CAMPILLO, MONTEVIDEO ETORB. 24 -  
DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA 5 -  
ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Ruben**, familia eta lagunen partez. Cava eta pastelak zure kontu!



Apirilaren 19an 11 urte egingo dituzu. Zorionak familia guztiaren partez. Oso ondo pasa.



### GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Lier (974. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



**Joanesek** 15 urte egingo ditu apirilaren 20an. Zorionak! Disfratatu eta zelebrau! Asko maite zaitugu. Besarkada haundi bat familiaren partez.



Zorionak Berrizko **Gari** Velerdaseri eta Iruñan bizi den bere izeko **Erlea** Velerdaseri euren laugarren eta 42. urtegunean. Mosu bat anaia Lier eta lehengusina Izaroren partez, eta loiba Gari eta Lier, eta alaba Izaroren partez. Eta, batez ere, amama eta ama Maribiren partez.

## Eguraldia

ZAPATUA 15° / 9° ☀️

DOMEKA 14° / 8° ☀️

ASTELEHENA 12° / 8° ☁️

MARTITZENA 11° / 7° ☁️

EGUAZTENA 11° / 6° 🌧️

EGUENA 11° / 6° ☁️

**HITZALDIA**

Eguneroko keinu txikiak ingurumenarekin konpromisoa aurrera egiteko

**AMA LURRAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

**Gure aztarna positiboa planetarentzat**

Apirilak 15 -26 Erakusketa **INGURUMENA** eta **GIZA ESKUBIDEAK**  
Pobreziaren aurkako Borrokan Ingurumen Jasangarritasunaren aldeko Nazioarteko Sarea

Ibarretxe Kultur Etxean  
**Apirilak 23.**  
**19:00h.**

Bizkaia, RED por la SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL en la LUCHA CONTRA LA POBREZA, Jurruta



**Pio Pio, eramateko janaria**

Arripuko tortilla aukera ezberdinak

Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera

Baserriko ogia (Panarra, Otxandioko baserri ogia)

📍 BI-623, 48213 Izurtza

📍 BI-623, 48210 Otxandio



# "Euskaraz berba egiteko ahalegina egin behar dudala sentitzen dut"

Rocio Alhamak Mallabiko Berbalagun egitasmoan parte hartzen du; barikuetan elkartzen dira eta euskaraz berba egiten trebetasuna hartzeko aukera ezin hobea dela uste du



**Rocio Alhama Galisteo**  
Irakaslea  
**KORDOBA | 1981**

Oso ondo egokitu naiz. Egia esan, ohiturak oso desberdinak dira eta hasieran aldaketa izan zen, baina jendea oso atsegina izan da beti nigaz eta oso erraza egin zait Mallabira egokitzea. Herri txikia da eta denok elkar ezagutzen dugu. Gainera, gustatzen zait batera eta bestera ibiltzea, ondo egokitzen naiz leku berrietara. Andaluzian zabalagoak gara, bai, baina euskaldunak behin zabaltzen direnean, bizi osorako lagunak dituzu.

**Mallabira heldu eta denbora gutxira hasi zinen euskara ikasten.**

Bai. Euskarak asko erakarri nau beti. Askok gustatzen zait duen soinua. Bada, etorri eta denbora gutxira Ermuko AEK-ko euskaltegian hasi nintzen euskara ikasten, zerotik. Lau urte egin nituen, utzi nuen arte. Momentu bat heldun zen sentitu nuena burmuinak ez zuela ez aurrera ez atzera egiten. Hala ere, euskaraz zeozertxo irakurtzen eta telebista euskaraz ikusten jarraitu nuen. Inoiz ere ez dut deskonektatu. Orain hiru urte semea izan nuen eta berriro ere euskara ikasten jarraitzeko beharra sentitu nuen. Euskaltegira bueltatu nintzen eta oso pozik nago. Askok gustatzen zait euskaraz berba egiten entzutea, eta berba egiten dudana baino gehiago ulertzen dut.

**Askok gustatzen zait euskaraz berba egitea, eta berba egiten dudana baino gehiago ulertzen dut**

**Iaztik Berbalagunen ere parte hartzen duzu. Zerk motibatuta?**

Euskaraz nahitaez berba egiteko aukera ematen didalako, edo behintzat trebetasuna hartzen

joateko aukera ematen didalako. Etxean gaztelaniaz berba egiten dugu. Baina herritarrekin euskaraz berba egiteko gai izan gura nuke. Mallabian askok euskaraz egiten dute, eta, nigaz gaztelaniaz jarduteko ahalegin bat egiten duten moduan, nik ere euskaraz berba egiteko ahalegin hori egin behar dudala uste dut; batzuek esfortzu handia egiten dute, igartzen zaie. Bada, nik ere eurei euren hizkuntzan berba egiteko ahalegin hori egin behar dut.

**Berbalagunek nahitaez euskaraz berba egiteko aukera ematen didalako animatu nintzen parte hartzera**

**Zer egiten duzue Berbalagunen?**

Barikuetan elkartzen gara; ordu edo ordu eta erdian egoten gara. Zeozter hartzeko geratzen gara eta gure egunerokoaz berba egiten dugu, euskaraz. Egunaren arabera, bost-sei lagun batzen gara, askotariko adinekoak. Eta oker esandakoak zuzentzen ditugu. Horixe da ikasteko modu bakarra! Irteerak ere antolatuko dira laster. Gainera, tokiko euskara ikasteko aukera ere badugu.

**Oso lagungarria da?**

Ezinbestekoa da. Euskaraz berba egitera animatu ezean ez dago zereginik. Gaztelaniaz berba eginez gero, denek ulertuko dizute, baina hemen egonda zer gutxiago euskaraz berba egitea baino! Niri askok gustatzen zait berba egitea, eta denekin gainera. Euskaraz egin behar badut, bada, euskaraz arituko naiz. Horretarako aukera ematen dit Berbalagunek.

**Animatuko zenuke jendea?**

Jakina! Oso ondo pasatuko dute eta jende berria ezagutu. Hizkuntza bat ikasteak ez du kalterik. Bertakoa, gainera!

**Korrikaren lekukoa ere eraman duzu aurten. Zelako esperientzia izan zen?**

Oso garrantzitsua izan da. Aukera eskaini zidatenean, asko emozionatu nintzen.

## Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



**Elebitasunaz**

Berrian egindako azken elkarriketan elebitasunaz aritu zen Joseba Sarrionandia. Zuzena izan zen: da timo bat. Gauza positibotzat hartzen dela elebitasuna, hizkuntza gehiago dakizkigulako, eta hori gauza ona den arren, ez dela egoera normala, kolonialismoaren antzeko prozesu baten ondorio baino.

Gizarte elebiduna hori delako: erdaldunak elebakarrak dira, eta euskaldunok elebidunak. Klaro.

Athleticen ospakizunak ikusten dituzu, eta hamar ordutan apenas inork esan ditu mikrofonotik lau berba euskaraz. Hauteskunde kanpaina jarraitzen duzu, eta alderdiren baten euskarazko testua txarto dago; beste batzuek diote euskararen alde daudela, baina inposizio barik; besteren baten hautagaiak dio normaltasunez hartu behar dugula Osakidetzan euskaldunak ez diren medikuak egotea.

Euskaldunok elebidunak gara, eta hor konpon. Eta ni zalan-tzan ea zutabe honekin euskara inposatzen ari natzaizun, irakurle.

Norbaitek zutabe hau irakurri eta pentsatuko du: badabiltza hauek berriro ere negarrez, biktimarenak egiten beste behin. Zenbat kexatzen garen.

Astelehenean hasiko da Euskal Herrian Euskarazek antolatutako duen Harrotze Astea Euskal Herri osoan. Harrotasunez aldarrikatuko dugu gurea dena, eta beharko lukeena. Agian norbaitek karteletako erdarazko berbak ezabatuta ikusiko ditu eta aztoratu egingo da, ea zertan gabiltzan, zein errespetu falta den hori. Esan beharko diegu guk horrela bizi dugula egunerokoa, eta ariketa osasuntsua dela enpatia, haiek ere ikas dezaketela euskaraz. Guztiontzat dago lekua elebitasunaren timoan.

**MALLABIA • AITZIBER BASAURI**

Rocio Alhama 2008an etorri zen Kordobatik Mallabira. Maitasunak ekarri zuen. Bere egunerokoan euskaraz jarduteko aukera izan gura

du eta, horretarako, Ermuko AEK euskaltegira doa egunero.

Maitasunak ekarri zintuen Mallabira. Zelan egokitu zara bertara?

**bertako**  
igogailuak | ascensores

**BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

**IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA**

**2.500 bezerok gugan dute konfiantza**

**943 903 450**  
bertako.eus

